

Nikaragua libre, Ertamerikan

Joan Mari Torrealdai

Cortázar eta Vargas Llosaren artean

Julio Cortázar-en liburua abioian irakurriz iritsi nintzen Nikaraguara. “Nicaragua tan violentamente dulce” Nikaragua berriaz kantatu bat da, lilura baten agerpena. Cortázar-ek deskribatzen duen mundu berri hori ezagutzera nindoan, herri txiki eta zapalduen esperantza ordezkatzeko duen iraultza horrek nola gorputz hartu zuen Nikaraguan sei urteren buruan.

Beste idazle batek, Vargas Llosa-k, Nikaraguarako bidean, buruan zeramatzen galderak ere nere egiten nituen: Estatu marxista-leninista al da Nikaragua? Dagoeneko ba al da, edo izateko zorian dago?

Entzutera, ikustera, ikastera, ulertzera joan naiz Nikaraguara. Galdera-pilo batekin. Sinpatia handiz. Jakinmin handiagoz. Kritiko eta objektibo izateko asmoz ere bai, esan ohi den moduan.

Handik etorrita, han eta hemen nabilela, Nikaraguan egon naitzela jakitean, kuriositate handia sortzen da: “Eta? Zer moduz dago hura, gaizki ezta?”, galdetzen didate. Ez dut jakiten zer erantzun, ez bait dakit zer galdetzen duten.

Ezin hobeto tratatu ninduten. Ateak erraz irekitzen dituzte. Internazionalista ongi etorria da beti. Kazetari bezala nindoan, baina ez nintzen *Le Monde*-koa. Jakin ez zuen nehorik ezagutzen, harritzekoa bada ere. Berdin dio: “Ez dago bitarteko txikirik guretzat —esan zidan Luz Beatriz Arellano-k, Valdivieso Zentruko Solidaritate-Arduradunak, hainbeste lagundu ninduenak—, ongi etorriak dira gure herriarekin eta iraultzarekin solidaritatea agertu nahi duten guztiak, eta gutaz informatzera datozen guztiak. Informazio-sare handiak Inperialismoaren eskutan daude. Zurea bezalako bitartekoeekin ari gara eritzi publiko mundiala aldatzen, emeki-emeki”.

Ez dute deus ezkututzen. Joko garbian ari dira. Informatzeko desiratzen daude, Gobernuaren zein oposizioa, nork bere ikuspegia emateko, noski. Jakinaren gainean daude, barruan adina kanpoan ari dela jokatzeko Nikaraguaren etorkizuna. Baina ez dute ez informazioa eta ez informatzailea bide bakarretik gidatzen. Testigu naiz nola prestatzen dituzten entrebistak oposizio politiko eta erlijiosoarekin ere. Jokabide honetaz harriturik, ikusitakoaz mintzatu nintzaion Fernando Cardenal-i, Hezkuntza-Ministrariari. Eta honek esan zidan: “Guregana datozen guztiei gauza bera esaten diegu beti: entzun denei, guri eta gure arerio politikoei, ikus dena, eta atera zeuron ondorioak. Zergatik jokatzeko dugun hain zabal eta garbi? Komentziturik gaudelako, azken batean, gure proiektuaren aldeko eritzia izango dutela. Horren milaka frogak dugu”.

Segurantzia hau leku guztietan aurkitzen da, arrazoia eta egia berekin izatearen konbikzioa. Zer da hau, fanatismoa, dogmatismoa? Ezta hurrik eman ere.

Managuan egon nintzen ia denbora osoan. Baina denek esaten zidaten Managua ez zela Nikaragua. “Nikaragua sakona” ezagutzeko, barrura joan behar nuela. Nora joan, ordea? Jalapa herrira, Iparraldera, joango nintzen gustura, horixe bait zegoen modan, “asentamiento” edo birkokalekuak zirela eta. Baina, Kosta Atlantikora joateko, baimen ofiziala behar da, gerragatik. Gainerako guztian libre dago ibiltzea. Harreman-saila egin ondoren, bidaia bat atera zitzaidan, nahikoa ustekabea, apaiz normando batekin, eta Nikaraguan ezkonduko zegoen neska aleman batekin. Hondurasko mugaraino joan ginen, egun batzutarako, furgoneta batean. Harritu ninduen zein kontrol gutxi zegoen bideetan eta herrietan. Normaltasun-itxura dago denean: soldadu eta miliziano armatu gehiago ikusten da bazterretan, hori bai. Eta muga-inguruan, bistan daude gerra-seinaleak: etxe abandonatuak, bonbaz joak, bide-

-bazterrean erretako kotxeak... Trintxeratan ere egon ginen, "compa"ekin argazkiak ateratzen, inongo kontrolik gabe. Pasa-portea inon erakutsi beharrik ez nuen izan nik.

Hasieratik bertatik, nahiz eta askotan inprobisazioz, erraz atera zitzaizkidan entrebistak. Bata bestearen ondoren, katean. Denbora- eta asti-falta zen problema. Ezin denetara iritsi: denbora-faltaren erruz galdu nuen Obando-rekin entrebista, eta astirik ezagatik eta gerragatik Tomas Borge-rekin hitzarturik nuena. Barne-Ministrari bezala Frontera joan behar izan zuen, justu Jalapara, iluntzean etxeratu gabe zegoen, eta nik hurrengo goizeko seietan abioia hartu behar nuen Salvador-a joateko. Penaz gelditu nintzen, Borge-ren hiru liburu irakurri-berriak bait nituen. Borge historikoa da, FSLNren fundatzaileetakoa, haietatik bizirik dagoen bakarra, olerkari fina, hizlari atsegina, Iraultzaren sinbolo bizia.

Denetara ezin iritsi honetan, astirik ezaz gain, garraioen egoera dago. Managua herri laberintiko eta fantasmala da: ez du zentru-rik, 100 kilometro karratu ditu, kaleek ez dute izenik, Ministrari-tza eta bulegoak sakabanaturik daude. Jainkoak daki non. 1972ko lur-ikarak 14.000 hildako eta herri desegin bat utzi zituen atzean. Managua berria, Somoza diktadorearen komenentziako lurretan eraiki zen, oso sakabanaturik.

Managuan ez dago oinez ibiltzerik, beroagatik eta distantzien handiagatik. Eta garraioetan? Hor dago, ba, koska. Iritsi eta hurrengo egunean, goizeko bederatzietan entrebista bat nuen INIESen. Rigüero auzoan bizi nintzen ni, Uriel Molina-ren etxean. Handik entrebista-lekura nola joan galdetu nuenean, kilometro-erdira pasatzen zen kaminora joateko esan zidaten, autobus edo taxiren bat hartzera, eta parean pasatu zen mutil bati eskatu zioten laguntzeko. Gazte honek Osasun-Ministraritzako bulegoetan lan egiten zuen, herriaren beste muturrean. Kamino horretan, lauzpabost taxi gelditu zituen nere lagunak, baina alferrik: ez zihoazen nere bidean. Neri komeni zitzaidan autobusik ez zen pasa. "Hobe horrela", pentsatu nuen nere kiko, beldurturik, jendez gainezka bait zihoazen autobusak eta taxiak: sartzea lortzen banuen ere, non eta nola irten asmatuko ote nuen, gero? Kontua da, ezen, bi ordu pasata, han geundela artean, mugitu gabe, garraioen zain. Nere lagunak besterik erabaki zuen arte: bere lantoki aldera zihoan autobusa hartu genuen, bere bulegora eraman ninduen eta han, arduradunarekin hitz egin ondoren, Ministraritzako autoan eraman ninduten entrebista-lekura. Bederatziak bost gutxiagotan INIESen nintzen. Bihotza eta burua bete harridura nuen: ez ne-

kien zer miretsi gehiago, Managuako garraioen egoera tamalgarria edo, neri laguntzarren, lanera orduerdi baranduago iritsi zen mutiko honen jarrera hunkigarria.

Zer gertatzen da Managuan eta Nikaragua osoan garraioekin? Gutxi direla, eta zaharrak. Eta gero eta txarragoak, blokeoaren erruz, barritzeko piezarik ez dagoelako. Eskerrak bertako jandea bihotz-zabala dela, beren kotxeetan hara eta hona eramateko.

Baretasun harrigarria

Nikaraguatik igaro-berri den edozeinen konstatazioa da han bizi den normaltasun- eta baretasun-giroa. Harritzekoa. Harritzekoa, bai, gerran dagoen eta agresio basatia jasaten ari den herri batean.

Ertamerikako herri hauekin harriturik gelditzen da bat. Badute halako etsipen-aire bat, misterio-itxura bat, *non-chalance* bat, la-saitasun bat: ezin jakin berezkoa den, erlijioak erantsia den, bizi-filosofia den, axolagabekeria den...

Nikaragua oso herri irekia da, xarmanta. Tropikala, noski. Olękariz josia omen da. Ezaguna da nikaraguarren amabilitatea. Borrokan bertan ere ispilatzen omen da izaera hori. Gorrotorik ez zaie antzematen, kurio-oso. Jon Sobrino-ri entzun nion nikaraguarrek andaluziarrak ematen dutela eta Salvadorkoek euskaldunak, bai izaeran eta bai borrokan.

Mugan bakarrik erakutsi behar izan nuen pasaporte- Ministritzatara sartzeko ere ez, "gomendaturik" nindoalako, seguru. Managuan polizi kontrol bat bakarrik ere ez nuen izan. Eta nik bezala beste guztiek. Milaka atzerritar biltzen da han. Era guztietakoak, infiltratuak ere bai. "Internazionalista" izatearen aureolaz koroaturik dabilta denak. Horrelako mila pasatzen da Valdivieso Zentruko Solidaritate-Arduradunaren bulegotik. Galdetu nion, ea ez ote ziren "infiltratu"en beldur. Ba omen dakite CIAk bide hori erabiltzen duela, "txori beltza"k edo Nikaraguaren gainetik astero pasatzen den abioi espioiak ezin fotografia dezakeen errealitatea jasotzeko; baina nikaraguarrek ba omen dute horrelakoak detektatzeko "seigarren zentzua".

Soldatu asko ikusten da Managuan, hara eta hona, edo etxe ofizialen zainketan. Atentzioa ematen du soldaduen jarrera ez-hieratikiko eta agresibitaterik gabeak, batez ere gero Salvador-en ikusi nuenarekin konparatuta. Salvadorko soldadu eta poliziaiek erakusten duten jarrera eta keinu apropos gogor eta basatiaren ondoan, herriko mutiko batzu iruditu zitzaizkidan Nikaraguakoak. Jarrean bertan ispilatzen da Armadaren kontzepzio desberdina.

Arrisku-sentsaziorik gabe bizi izan nintzen Nikaraguan. Beldur eta intseguritate-sentsazioa, egia esan, Salvador-en izan nuen, ez Nikaraguan. Anekdota esanguratsu bat kontatu zidan Xabier Gorostiagak, INIESEko (Instituto Nicaragüense de Investigaciones Económicas y Sociales) Zuzendariak. INIESEk antolatuturiko ekintza ofizial batera eskolarik gabe etorri omen zen USAko enbaxadaria. Ea nola zitekeen hori, galdetu zion X. Gorostiagak, harriturik. Ertamerika osoan seguruena Nikaraguan sentitzen dela, erantzun omen zion enbaxadari amerikarrak. Eta hor daude seinaleak: Nikaraguan enbaxadari amerikarrak bizkarzaintzaile bat bakarra du, eta, bitartean, Costa Rican dagoenak sei ditu eta Salvador-en dagoenak zortzi.

Egunez zein gauez lasai ibil daiteke Managuan, ez berdin Salvador-en. Seguritate honen prezioa kontrola dela, esaten dizute mihi gaiztoek. "Iraultzaren begi eta belarri" diren CDS edo "Comités de Defensa Sandinista" direlakoan bigilantzia eta espioitzari zor zaiola seguritate hori. Batzordeek kalez-kale kontrolatzen omen dizute gaueko mugimendua.

CDS hauek auzoz-auzo eta kalez-kale antolaturik daude, Kubakoen erara. Lan handia egin dute bai alfabetatzean, bai txertaketa-ekinaldietan, eta bai krimenaren eta drogaren aurka.

Hauteskunde politikoetan ere garaile

Hauteskunde politikoak ospatu eta bospasei hilabetetara iritsi nintzen Managuara. Bizi-bizirik zegoen artean erreferentzia hori, azaroko hauteskundeen garaitzapena.

Garaitzapen inportantea izan da hori Sandinismoarentzat.

"Baina zein zentzutan inportantea?", galdetzen diot José Argüello, intelektual sandinista kritikoari. "Aginte iraultzaile sandi-

nistak botuen, kutxen errefrendoa behar al du, ba, legitimatzeko? Iraultzak ez al du iraultzan bertan aurkitzen bere justifikazioa eta eskubide-iturburua?”.

“Batez ere kanpora begira ziren inportanteak hauteskondeak, elezioak ospatzea hain zuzen. Washington-ek erakutsi nahi zuen, iraultzak berez direla totalitario eta antidemokrata. Kanpaina handi bat orkestratu zuten hori frogatzeko. Aitzakia hori ere kendu egin nahi genion Inperialismoari eta, agintera iristean agindu bezala, ospatu egin genituen, hitza jan gabe eta etsaiak hitzik gabe utziz.

Barrura begira, egia da hauteskondeetan ez genuela gure legitimitazioa bilatzen. Iraultza egin duen herriak bere baitan du legitimitatea. Hauteskondeen arragoari, ordea, ez genion guk beldurrik. Bagenekien irabazle aterako ginela, eraso guztien gainetik”.

Gertatu ere, halaxe gertatu zen: zazpi alderdi aurkeztu ziren botu bila, eta FSLNk gehiengoa lortu zuen (736.052 botu, %67). Bigarrena oso atzean zetorren (PCD edo Partido Conservador Demócrata) 153.108 botu bereganatu zituen). Are atzerago bestek.

Hauteskondeak ospatu ziren. Irabazi egin ziren. Baina arerioak ez ziren hitzik gabe gelditu: ez omen ziren demokratikoak izan. Ez zirela demokratikoak frogatzeko, garantiarik ez zegoela erakusteko, manipulaturik zeudela salatzen, “Coordinadora Ramiro Sacasa” erretiratu egin zen lehiaketatik kanpaina bertan.

“Amerikanoen aginduz erretiratu ziren horiek, eta ez baldintza-faltagatik —esaten dit José Argüellok—. Ez genuela hauteskunderik ospatuko, nahiz eta agindu, esanez ibili ziren lehenengo. Eta gero, ez zela garantiarik. Bistan da. Mundu zabalean Estatu totalitarioaren irudia saldu ondoren, nola onar orain hauteskunde librean posibilitatea? Eta bada besterik ere: botutara jota, bazekiten jakin barragarri geldituko zirela”.

Salakuntza salakuntzaren aurka, nola ziur jakin hauteskondeak libreki ospatzeko aski garantiarik izan zenentz. Salvadorko hauteskondeetan San Salvador-en nintzen. Salvadorko hauteskondeak ez dituzte salatu Nikaraguakoak salatzen dituztenek, nahiz eta jakin garantia hoberik ez dela han eta, okerrago dena, lurraldearen hirutik batek ez duela boturik ematen, gerrilaren kontrolpean da goelako. Dena den, gutxienez, sandinista-zale ez den Vargas Llosak esaten duena baieztetik egongo da agian: alegia, Mexicokoetan eta Panamakoetan baino garantia gutxiago ez dela izan Nikaragua-koetan.

Amaitzeko, hauteskundeak direla eta, bada arazo “teoriko” edo “intelektual” bat, biziki interesgarria: Nola ezkon daiteke Iraultza demokrazia formalarekin? Hauteskunde burgesen printzipioa ukatu egin bait dute sandinistek. Sandinistek uste dute, iraultzaren desaroioloan duten hegemonia hori justifikaturik dagoela liberazio-borrokan egin duten lanagatik eta jende-masak eskaini dien atxekimenduarekin. Prozezu iraultzailea atzeraezina da. Erregimen zaharrera itzultzea pentsatu ere ez. Pentsamolde honen arabera, ez ote dago kontradikziorik hauteskundeek suposatzen duten joko-arauekin, eta bereziki aginte-alternantziarekin?

Agintea eta oposizioa buruz-buru

Garaitzapen ondoko lehen Juntak Gobernu sandinistari eman dio bide. Juntan, Somozaren aurka parte hartu zuten indar sozial guztiak zeuden. Oraingo Nikaraguan FSLN da hegemonikoa eta bera bakarrik dago Gobernuan, demokrazia formalaren joko-arauetan ohi denez.

FSLN ez da alderdi klasikoa; ez da homogenoa. Joera, jatorri eta historia ezberdinak daude barruan. Desberdintasun horietan oinarriturik, behin eta berriz zabaldu dira Gobernu barruko tentsioen, aginte-borrokan zurrumurruak. Lehendakaritzakoan, adibidez, T. Borge eta D. Ortega aurrez-aurre egon omen ziren. Hura gogorra omen da eta hau diplomatikoa, etab. Kontrakorik ere entzun izan dut. Sandinistek berek, horrelakorik galdetu izan diedanean, minimizatu egin didate, edota ukatu. Egon daitezkeen, eta egon dauden, joera ezberdinak ulertu ahal izateko, FSLNren barne-konposizio historikoa kontutan eduki behar dela esaten dit Luz Beatriz Arellanok. Nagusiki hiru joerek osatzen dute FSLN:

“Guerra Popular Prolongada” edo GPP estrategia defendatzen zuena da bat. Joera honetakoa zen Borge, adibidez.

Joera proletario bat ere bada barnean, minoritario izanik ere. Borroka politikoa batipat hirietan eta masa-ekintzak defendatzen zituen honek.

Eta hirugarrenak, “tercerista” izenekoak, burgesia antisomozistarekiko aliantza eta epe laburrera intsurrekzioa defendatzen zituen. Joera honetakoak ziren, besteren artean, Ortega anaiak.

Borroka-garaiko estrategia ezberdin hauek nola hezurmami-tzen ote dira orain, agintearen erabakietan?

Eta oposizioa, zer da oposizioa Nikaraguan? (Oposizio zibilaz ari gara, eta ez armatuaz).

Esan daiteke, sandinismoak duen oposizio politikoa eskuinekoa dela ia eksklusiboki. FSLNren ezkerretik PCN, alderdi komunistak eta MAP-ML daude. Indar gutxi dute: hauteskundeetan 16.000 botu batak eta 11.000 besteak atera zituzten.

Kontserbadoreek eta liberalek indar gehiago dute. Halere ahulak direla idatzi du V. Llosak eta horrexegatik onartzen dituela Fronteak. 29 aulki dituzte Parlamentuan, denetara 96 direlarik. Baina oposizioko alderdiak oro ez daude Parlamentuan; esan bezala, badira hauteskundeak boikotatu zituztenak ere.

Instituzioekiko oposizioaren barne-zatiketa honek ahuldu egiten du kontrakarra. Instituzio iraultzaileei muzin egiteko joera hori Juntaren 1981eko krisian hasi zen, jadanik Robelo, Chamorroren alarguna eta beste erretiratu zirenean, FSLNren joko politikoa deslegitimatua nahirik, honen hegemonia eta marxismoa salatuz. Gauza bera gertatu zen gero, 1984ean, hauteskundeetakoan.

Erretiraketa guztien artean, sinbolikoki bederen, agian Edén Pastorarena izan da sonatuena. Defentsako bigarren arduraduna zelarik egin zuen hanka, FSLNrekin hautsiz. “Egiatzko” sandinismoaren aldeko borroka egiteko aldegiten zuela, zioen berak. Che Guevara bigarrena? *De facto*, “kontra” bilakatu zen. Edén Pastoraren ihesak min egin zion Sandinismoari, ez da dudarik. Sona handikoa zen, bai barruan eta bai kanpoan. Bera zen Jauregi Nazionala hartu zuena 1978an, sandinista-sail bat askatuz, horien artean Borge. Edén Pastoraren “saldukeriaz” ez hitz egin nahiago dute sandinistek, gaur ere: Sozialdemokrata omen zen, eta abenturazalea, eta kitto.

Batzuren ustetan, oposizio politikoak baino izen, protagonismo eta, agian, indar gehiago, bi instantzia zibilek dute: *La Prensa* egunkariak eta Managuako Obando Kardinalak.

Bi hauen indarra begien bistakoa da, eta, azkenaldi honetan, oposizio agerikoan eta indarrean ari dira jokatzeko, aurrez-aurre askotan. Esan, oposizio politikoak dio “De frente contra el Frente”, baina frontea praktikatu, beste hauek egiten dute.

“Sandino vive!”

Nonnahi, paretetan, karteletan, orri solteetan, argitarapenetan ageri da: “Sandino vive!”, eta Sandinorekin Sandinismoa.

1930 inguruan borrokatu zuen Sandinok inbaditzaile iparramerikarraren aurka. Ematen du, Sandinorekin abiatu dela Nikaraguarren historia. Badirudi, nahiago dutela aurreko historia osoa ahaztu, ezabatu ezin bada ere. Ez dute bere historia bezala hartzen. Errekuperaezina iruditzen zaie iragana: espainolen inbasioaren aurreko arrastorik apenas gelditzen den, kolonialismo espainolak ez zuen eta bertakoa gorde. Independentzia krioioloak ez zuen egoera koalitatiboki hobetu, barne-borrokak eta menperakuntza zirela medio. Lehendakari izandako abenturazale bat ere badute, Walker iparramerikarra. Eta 1912az gero Nikaragua USAren protektortua izan da praktikan. Marinek bi aldiz beretzat hartu ere egin dute Nikaragua.

Testuinguru historiko eta politiko honetantxe kokatu behar da Sandino eta bere borroka: nazio-subiranotasunaren defentsan, armak hartzen ditu, okupatzaile amerikarraren aurka, 1934ean hauek kanporatzea lortu arte. Abertzaletasuna eta antiinperialismoa batera doaz Sandinoren borrokan. Ondare hori jaso du sandinismoak. Horregatik, Sandinismoak gainditu egiten du, ez bakkarrik FSLN, baizik Nikaragua ere. Ertamerika osoko borroka espresatzen du. Sandinok bizirik dirau: “Patria libre o morir”, Ertamerikako liberazio-mugimendu guztien oihua da.

Hitz magikoa da Sandinismoa. Bera ere sandinista omen da, dio oposizio politikoak. Gertatzen dena, zera omen da: Nikaraguako herriari eta historiari zor zaion figura lapurtu egin duela FSLNk. Sandino-zale bide dira denak, egiten ari diren politikaren justifikazioa eta sinboloa Sandinorengan bilatuz.

Gaurko Sandinismoa Sandino eta gehiago da. Baina ez da doktrina-gorputz homogenoa. FLSN bera ere ez da homogenoa. Eta gero, tradizio ugaritan errotzen da erregimen sandinista, propioki sandinistan, marxistan eta kristauean:

- Sandinoren ondarean, hasteko: ondare abertzalean, bereziki inbaditzaile amerikarraren aurkakoa.
- FSLNk ordezkutzen duena da bigarren korrontea. Carlos Fonsecak 1961ean eraikia da FSLN. Ezaguna da Fonseca Kubako ereduaren eta Castroren mireslea zela.
- Hirugarren influentzia, Kristautasunarena da.

Alfabetatzea: "Iraultza eta kultura, gauza bera"

Alfabetatzea da askorentzat Sandinismoaren garaitzapenik handiena. Etsairik amorratuenak ere nekez ukatzen dio Sandinismoari lorpen hau.

Alfabetatzea, gurutzada bat da Nikaraguan: "La Cruzada Nacional de Alfabetización". Guretzat, hizkera honek badu zerbait arbuigarririk. Franco eta bere gerra gogoratzen dizkigu. "Zergatik Gurutzada?" —galdetu nion lehen egunean han lanean ari den Dubois adiskide euskaldunari. Bertakoei zuzenean galdetzeraz auzartzen ez nintzena, honi galdetu nion. "Ez ezazu hori galde hemen. Hala dira hemengo gauzak" —erantzun zidan, beste esplikaziorik gabe. Orduan gehiegi ulertu ez banuen ere, gerora argitu zitzaidan dena: hizkuntza eta kontzeptu erlijiosoak bazter guztietan daude Nikaraguan.

"Una auténtica insurrección cultural" bezala definitu zidan alfabetatzea Francisco Lacayok hurrengo egun batean, eta hori gehiago gustatu zitzaidan. Lacayo hau Kultur Ministrari-ordea da, eta, diotenez, egiazko Ministraria, Ernesto Cardenal kanpora begirako pantaila bait da. Fernando Cardenal-ekin batean, Francisco Lacayo izan zen Alfabetatze-Kanpainaren buru. Luze mintzatu nintzen Lacayorekin, bai Ministraritzako bulegoan eta bai bere etxean. Inpresio oso ona egin zidan, argia eta azkarra.

Bigarren liberazio-gerra bailitza ulertu dute sandinistek alfabetatzea: "Iraultza eta Kultura, gauza bera eta berdina". Iraultzaren metodo bera aplikatu zioten alfabetatzeari: intsurrekzioa, mobilizazioa, herriari deia, etc.

Nikaraguako Alfabetatzea ezin omen da ulertu Iraultza gabe, esaten zidan Lacayok. Nola munta Alfabetatzea dirurik gabe, tresnarik gabe, materialerik gabe, maisurik gabe, metodorik eta testurik gabe? Zeren eta, abiatu zirenean, ez bait zuten deus. Alfabetatze-sistema kopiatu eta esportatu nahirik alderdi teknikoez galdezka datozkionei, beti gauza bera erantzuten omen die Lacayok: "Egin lehenik iraultza".

Gerra bukatu eta 15 egunetara, hildakoen balantzea egin aurretik, "La Cruzada Nacional de Alfabetización" eratzea erabaki zuen Juntak, eta Fernando Cardenali eman zion horren enkargua.

Nondik hasi? Ez edukitzeagatik, ez zuten zentsurik ere, ez zekiten zenbat alfabetatu behar zuten ere. Hortik hasi behar, ba.

Eta hortixe hasi ziren, zentsua eginez: biztanleriaren % 52 zen alfabetatu beharra. Ez zegoen maisurik. Zer egin? Gazteriari dei egin eta hamalau urtetik gorako 200.000 alfabetatzaile prestatu zituzten. Metodoak eta testuak idatzi ziren. Eta munduaren itzulia egin zuten, diru bila.

Unescoren eta Aita Santuaren bedeinkapen guztiekin, Solidaritate Internazionalaren laguntzan fidatuz, ekin zioten “Cruzada contra la ignorancia y la oscurana” deituari. Lau hilabete t’erditan % 52tik % 12ra ekarri zuten analfabetismoa. Hori, lehen ekinaldian; gero izan da sakontze-programarik. “Baina, zoritxarrez, ez nahi adina. Nahi genuen abiadan aurreratzerik ez da izan, gerragatik, gazteria aberriaren defentsarako mobilizatu behar izan da eta. Ez dago dirurik ere, hori da bestea: aurten bi eskola bakarrik erai-kiko ditugu Nikaragua osoan. Atzo hasi zen eskolurtea: ba, leku askotan lapitzik eta paperik gabe hasi behar izan dute”, komentatzen dit Fernando Cardenalek.

Managuan dagoen Alfabetatzearen Museoak merezi du ikustaldi bat. Zifrak, metodoak, hildako alfabetatzaileen argazkiak eta jantziak daude ikusgai, baina baita eskualdeetako ohiturak eta bizimoldeak ere. Etnografi museoa ematen du, Nikaragua ezagutzeko biziki interesgarria.

Alfabetatzearena baino, Museo etnografikoa dirudiela, aipatu diot Francisco Lacayori, entrebistakoan, eta honek alfabetatzearekin batean egin ziren lanak aipatzen dizkit: “Hamaseigarren mendean deskubritu omen zen Nikaragua. Baina nikaraguarrok geure herria deskubritu, alfabetatzerakoan deskubritu dugu. Milaka nikaraguarrentzat, Managuakoentzat bereziki, benetako deskubrimendua izan zen mendialdeko Nikaragua lurrez eta jendez ezagutzea. Deskubrimendurekin batera, bilketa-lana egin genuen: eskualde guztietako minerale, arkitektur eta arkeologi altxorrak, ahozko tradizioa, folklorea, legendak, ipuinak bildu dira sistematikoki. Esaterako, hamabost mila ordu zinta grabaturik dugu ahozko tradizioa jasoz. Ameriketa osoan ez dago beste horrelako bat”.

Aho-zabalik gelditzen da bat, Lacayori Alfabetatzearen antolamenduko muntai xehetasunak entzutean: alfabetatzaileen prestaketa, mantenua, higiena, materialeen lortzea eta garraiatzea, alfabetagaien prestaketa bera. Ezin sinetsizkoa da.

Benetan, iraultzaren festak sortzen duen euforian bakarrik gertatzen da egingarri horrelako ekintza munstro bat. Garai bere-tsuari, Hondurasen ere saiatu ziren gauza bera egiten. Porrot egin

zuten: alfabetatu nahi ez zuena zigortu eta preso hartzen omen zuten.

Alfabetatzeak izan du etsairik ere. Burgesiak mesfidantzaz begiratu zion Alfabetatzeari hasiera-hasieratik. Alfabetatzearen "indoctrinamiento" delakoa eta Kubaren eskuharmena salatu dira. Biak planteatzen dizkiot Fernando Cardenali, Alfabetatzearen aitari. Honek ohi duen enfasiarekin ukatzen du Alfabetatzea arma ideologiko bezala erabili izana. Eta indar berdinez baieztatzen du Iraultzarentzat hori proiektu politikoa zela. Garai hartan berak emandako erantzun bat aipatzen dit, irakurriz:

"Se trata de un proyecto político. Nuestro objetivo no es sólo de enseñar a leer, sino de poner en marcha un proceso de concientización, de politización. Todo sistema de educación produce la ideología de una clase dominante, la imagen que ella tiene de las relaciones sociales. Con el sandinismo, la educación debe ponerse al servicio de las clases marginales".

"Ezjakintasuna ere proiektu politikoa da", azpimarratzen du F. Lacayok.

"Laguntza teknikoa eskaini ziguten kubatarrek, esperientzia bait zuten alor horretan. Eskaintza baliotsua egin ziguten. 1.200 irakasle kubatar izan genituen, esan ohi dena baino askoz gutxiago; beste herri askotako irakaslerik eta laguntzailerik ere izan zen. Laguntza ugari eta era askotakoak bildu genituen. Gure alfabetatzea gazteengan oinarritu zen halaberrez, ez irakasleengan, Kuban bezala: 200.000 alfabetatzaile izan genituen. Eta gure metodoa: "herriak herria hezitzen du".

Alfabetatzea aurrera darrai, astiro bada ere. "Irakasle herritarra"ren irudia lantzen, sakontzen eta promozionatzen dabilta orain. Baina alfabetatze klasikoan ere bai. Mendialdeko herriska batean alfabetatzaile bati domina jartzea ikusi nuen, herriko festa-
ren erdian. Alfabetatzearen eresia ere abestu zuten. Oso polita: Ernesto Cardenalen hitzak eta Mejías Godoy-ren doinua.

Alfabetatzea bakarrik ez, Hezkuntza osoa bultzatu nahi izan du Gobernuak: milioi batera pasa da eskolaurretik Unibertsitate-
rainoko ikaslegoa. Borondate politiko irmearen seinale, hezkuntzako presupostua, 1978an 351 milioi kordoba zena, 1984ean 2.000 milioira igo zen.

Komunikabideak eta zentsura

Prensa internazionallean Nikaraguako komunikabideez hitz egitea, zentsuraz hitz egitea da. Barruan ez da horrela. Uste baino errealitate askoz aberatsagoa aurkitu nuen. Egon, zentsura badago; baina ez da “zentsura” hitzarekin ulertu ohi duguna.

Egin nuen lehen entrebista formala, komunikabideei buruz izan zen. Eguerdian iritsi eta arratsaldean, luze eta zabal adierazi zidan Nikaraguako komunikabideen panorama Alfredo izeneko latin amerikar batek. ANN (Agencia Nueva Nicaragua) eraikitzen ari zela zela bakarrik dakit hari buruz.

Albiste-agentzia bakarra du Nikaraguak: ANN, 1979an, Iraultzaren zerbitzuan fundatua. Indar eskasa du, 400 bat harpidedun bakarrik. USA, Mexico eta Ertamerika lantzen dute batez ere. Korresponentsaritza bakarra dute Europa osorako, Parisen. Eskuinak zeharo baztertzen omen du. Erremintatxo horrekin, nola borroka Ipar Amerikako agentzia munstroen aurka? Informazioa, informazioaren manipulazio amerikarra, obsesio bezala bizi dute nikaraguarrek. Izan ere, gauza bat da egiaz eta benetan Nikaraguan gertatzen ari dena eta beste bat, USAk Nikaraguz saltzen duen irudia.

“Prensa” izena bera nahasgarri gertatzen da Nikaraguan. Nere inozentzian, “prentsa” gora eta “prentsa” behera ari nintzen ni nere galderetan, nere solaskidearen begien bistako harriduraz. Mariok halako batean esan zidanez, Nikaraguan komunikabideaz hitz egin behar da, eta ez prentsez. *La Prensa*, egunkari baten izena da eta, gainera, oposizioarena da. *La Prensa* aparte, badira beste bi egunkari: *Nuevo Diario*, sandinista kritikoa, *La Prensa*-tik jaioa; eta *Barricada*, FSLNren organo ofiziala. Hiru egunkari hauek ez dute inpresio ikaragarririk egiten egunkari gisa.

Fenomeno interesantea, egunkarietan barik, bestelako argitarapenetan aurkitu nuen nik, agian ustekabekoena bera zelako. Berrogei bat astekari, hilabetekari eta horrelako daude. Ganorazko aldizkariak iruditu zitzaizkidan batzu, hala nola: *Envío*, *Pensamiento Propio*, *Amanecer*, *Tayacán*, etc. Aldizkari hauen atzean elkarte- eta talde-mordoa dago, benetan biziak eta interesgarriak, iraultzaren koltxoi bezala. Esan zidatenez, kazetaritza-mota hau iraultza ondokoa da, ondokoa eta ondorio.

Berrogeitamar bat irrati ere bada, han-hemenka, 35 pribatu eta 15 sandinista. Hauetatik bik bakarrik dihardute hogeitalau orduz eta Nikaragua osorako, "Radio Nicaragua" eta "Radio Sandino". Nikaraguan, jeneralean Hirugarren Munduan bezala, irratia da historikoki komunikabiderik hedatuena, analfabetismoaren kausaz.

Kontrek ere irratia erabili ohi dute, beren berriak zabaltzeko eta jendea beldurtzeko. Somotillo-n, "Bloque" edo baserriarren promoziorako kooperatibako arduradun kristau sandinista batek kontatzen zidan, kontrek Hondurastik egin ohi dituzten emanaldietan nola mehatxatzen dituzten, izen eta guzti. "15 de septiembre" irratia Hondurasen funtzionatzen du, eta "Radio Impacto"k Costa Rican.

Bi telebista-katea daude, biak estatalak. Eskuinari ukatu egin zitzaion bere garaian kanal pribatu bat muntatzea. Nik ikusi ahal izan nuenez, kanpoko telesaioekin hornitzen dituzte ordurik gehienak. Telesaio amerikar dextente ikusteaz nere harridura agertu nion F. Lacayori, Kultur Ministrari-ordeari. Eta, egia esan, harrituago gelditu nintzen erantzunarekin:

"Ez diegu beldurrik, gure jendeak berrinterpretatzen badaki eta. Guraso batek kontatzen zidana aurrekoan: "Superman" irakurtzen ari omen zen haurra eta bapatean badiotsa aitari: Aita, Superman handia eta adoretsua izango da, baina ez da egon Jalapa-n Nikaragua defendatzen. Gure gudariak Superman baino handiagoak dira.

Badakizu, gainera, gorputz gaixo batean mikrobioak berehala sartzen direla. Ez horrela gorputz sendo batean, defentsa gehiago du eta".

Nikaraguan prentsa idatzira hurbiltzea, Chamorrotarrekin topo egitea da. Pedro Joaquín Chamorro, *La Prensa*-ren Zuzendaria, Somozak hil zuen. Orain, kazetari eranaren anaiak, Jaime Chamorrok zuzentzen du, Pablo Antonio Cuadrarekin batera. Chamorro hau "Partido Conservador" delakoaren leader inportantea da. Xavier Chamorro, *La Prensa*-koaren anaia, *Nuevo Diario* sandinista kritikoaren Zuzendaria da. Eta oraintsu arte, *Barricada* edo sandinismoaren organo ofizialarena Carlos Fernando Chamorro zen, eranaren semea. Hiru Chamorro, hiru egunkari eta familia bat, hori da Nikaragua gaur.

"La pesada mano de la censura", idazten du V. Llosak. Ikusi nahi nuen, beraz. Horra, ba: Nikaraguan aurretiazko zentsura dago. Goiz-erdian aurkeztu behar dira Barne-Ministraritzan argitaragaiak. Nelba Cecilia Blandón Teniente da Komunikabideen

Zuzendaria Gobernuan. *La Prensa*-k ditu batez ere zentsurarekin tirabirak eta istiluak. 1984ean, batezbeste, lautik bat kendu omen zioten. Beste egunkari eta argitarapenekin ez da horrenbestekorik gertatzen, ezta hurrik eman ere. Gertatzen dena da, *La Prensa* eta aginte sandinista buruz-buru daudela. *La Prensa* oposizio antisandinistaren ahotsa eta agente katalitikoa da, V. Llosaren beraren hitzetan.

Tayacán aldizkariaren Zuzendariari galdetu nion zer zentsura-mota zegoen Nikaraguan. Aurretiazko zentsura hori informatiboa dela esan zidan, ez ideologikoa. Batez ere arazo militarrei eta janari-hornidurei buruzkoa. Edén Pastoraz ere ez omen dago hitz egiterik. Neu bertan nengoen, Barne-Ministraritzatik *Tayacán*-era deitu zutenean, espalikatzen ari zitzaidan bezala, hurrengo zenbakian agertu behar zuen esne-prezioa ez zela zuzena adierazteko.

Zentsuraren gorabeherak kalte handia egiten dio atzerrian aginte sandinistari. Batipat, *La Prensa*-rekiko istiluek kritika gogorak dakarzkio. *La Prensa*-k berak, espreski eta deliberoz, martiriaren aureola bilatzen duela ematen du, agintea apropos ataka gaizto batean sartzea.

Lehenengo aldiz ohartzen naiz nolako aldea dagoen zentsuratik zentsurara. Jeneralean, "zentsura" esaten dugunean, inoren pentsamendua zentsuratzea ulertzen dugu. Esnearen prezioak gaizki ematea edo, ez zaigu iruditzen, pentsamendu-askatasunarena baizik. Baina biharko egunaren kezka eta larriz bizi den gizartean, edozein doktrinak edo tesik adina pisa lezake notizia alarmista batek, nahiz okerra izan, esnea gora doala, ogirik ez dela izango. Nikaraguan, ordea, gerran daude, ez da ahaztu behar. Eta honelako albisteak dira lehen graduak.

"Zer da zentsuratzen dena?", galdetzen dio bere buruari Borgek, eta erantzuten: "Edozein Estatuk zentsuratzen duena gerra-egoera bati buru egin behar dionean, Estatu Iparramerikarrak Bigarren Mundu-Gerran egin zuen bezala".

"Patria libre o morir"

Slogan bat baino gehiago da: Makina bat heriotza eta sakrifizio bada Sandinoren hitz horien atzetik.

Iraultza Nikaraguan ez da haur-jokoa, ez lehen eta ez orain: 50.000 hil ziren Iraultza egiten eta dagoeneko 12.000 badira Iraultzari eusten hil direnak. Erants horri kostu ekonomikoak, politikoak eta sozialak.

Lanak ematen ditu Iraultzaren defentsak. "Prioritate nazionala" da, 1983ko otsailaz gerotik. Nikaraguaren defentsa, aurretik, tropa mugazainen eta EPSk gidaturiko borondatezko milizianoen batailoien ardurapean eta kargu zegoen. Gaur egun, herri-mobilizazio masiboen gain eratzen da defentsa-sistema, horren kostu guztiarekin.

Xabier Gorostiagari elkarrizketa egiten ari nintzaiola, Fernando Cardenal, Hezkuntz Ministraria iritsi zen, neka-neka eginda. Ministraritzako lana amaitu ondoren, Unibertsitatera joan behar izan zuen, ikasturtearen irekiera-hitzaldia egitera.

"Eta badakizue zer esan diedan unibertsitariet? Nikaraguar baten lehen eginkizuna gaur defentsa dela! Frontera joateko prest egon behar dutela, mobilizaziorako gertu. Ikasketak, kultura, behar-beharrezkoak direla, noski, baina Aberria hondatzen badigute, adio ikasketak, gureak egin duela.

Ikusten duzue zein kurtso-irekiera ortodoxoa. Hezkuntz Ministria ere Frontera dei egiten!"

Etengabeko mobilizazio hauek problema askoren, gero eta gehiagoren, iturburu bilakatzen ari dira. 1984az gerotik tirabirak ugalduz doaz: erreklutamendu-metodoengatik protestaka ari dira gazte batzu, mutilen amek gero eta erresistentzia handiagoa egiten dute, prozesu iraultzailearen inguruko sektore batzu ere zerbitzu zibilak proposatzen hasi dira, alternatiba bezala. Eta horri guztio-ri aurre egiteko, esfortzu ideologiko ikaragarria egin beharrean dago Fronte sandinista.

Uriel Molina-renean, Managuan bizi nintzen etxean, bazen mutiko bat, bi urteko soldadutza Frontean egin-berria. Ni iritsi aurretik, justu hilabete lehenago, anaia hil zioten Frontean, eta anaia galduaren gomutan bizi zen. Gau batez triste etxeratu zen: lantokiko Asanbladan, Frontera joateko eskatu zioten; "anaia-aren lekua hartzera", esan zioten. Jota zegoen gizarajoa: seme zaharrena galdu ondoren, amak ez zuen horrelakorik entzun nahi, berak beldurra hezurretaraino sartua zuen, bai bait zekien gerra zer den; baina, bestalde, bere "compa" haiek zer pentsatuko zuten zegoen. "Eta, gainera, bizi egin nahi dut, gozatu", esan zidan ahopetik.

Ongi baino hobeto ulertu nuen orduan zenbat drama pertsonal, txiki eta handi, dagoen gerra baten barruan, ideala eta ideologia edozein delarik ere.

Mutiko horrek berak esplikatu zidan, bera bezalako mutiko asko nola ezkutatu egiten den, edo ihesari ematen dion, soldadutzara edo Frontera ez joatearren. "Colorado" gelditzen omen dira horiek. Bizitza sozialetik kanpo. Gehienek muga pasatzen omen dute. Esan zidatenez, hiru bat mila edo ba omen da situazio horretan. Asko da. Eta askotan, muga gurutzatzea lortzen dutenean, oso kondizio txarretan, kontrak harrapatu, eta berekin borrokatzera behartzen omen ditu. Somotillo aldera, Hondurasen muga aldera, furgonetan gindoazela, konturatu nintzen, bai, kontroletan, aurrean gindoazen hiru atzerritarroi ez zigutela pasaporterik eskatzen, baina bidean hartu eta atzealdean generamatzan gazteei txartela eskatzen zietela. Txoferrak esplikatu zidanez, "desertore" eta "iheslari"en begira egiten zuten.

Eliza: bat bitan banatzen denean

"Elizarekin topo egin dugu", esan genezake hemen ere.

Azterketa aitzin, gogoratu egin behar da, soziologikoki, herri oso erlijiosoa dela Nikaragua, zenbaiten ustez denetan erlijiosoena Latin Amerikan. Marxista ortodoxo euskaldun baten kasua kontatu didate, hara joan eta guruzbidea egin beharrean aurkitu zena. Hori da Nikaragua. Iraultza eta erlijioa plater berean zerbitzen dizkizute. Hizkuntza erlijiosoa, irudi erlijiosoak nonnahi, europar batentzat modu exageratuan. Gurean, aukera pertsonala da erlijioa. Han, arrainak, bizitzeko, behar duen ura.

Erlijiositatea, herri mailan, oso tradizionala da, zertan esanik ez, irudi-zalea, prozesio-zalea. Frankismoaren garaiko Andaluzia tropikal bat, nolabait esan.

Bestalde, oinarriko komunitateak indartsu dira, Askapen-Teologiaren ildotik. Iraultza-prozesuan oso-osoki parte hartu dute, Eliz hierarkiaren bedeinkapenik gabe, inoiz aurka, beti tentsio dialektikoan, baina etenik gabe. Bi militantziek, Kristautasunean eta Sandinismoan, bat egiten dute gazte eta ez hain gazte askoren bizitzatan.

Oinarrizko datu hauek aintzat hartu gabe, nekez uler daiteke Nikaraguan egosten ari dena. hein handi batean.

Eliza, alderdi politiko?

Lauzpabost urtez Nikaraguan lanean ari den amerikar batek, bere kotxean, Masaya-ra eraman ninduen, egunpasa egitera. Masaya ez dago Managuatik urruti. Herri handia da, eta batez ere ezaguna Somozaren aurkako gerraren deskribapen guztietan masayarren ausardia eta borroka-indarra goraki aipatzen bait dira. Hantxe hil zen Ortegatarren hirugarren anaia, Monimbo auzoko indioen matxinada laguntzera joanda.

Eguerdian, jatetxe batera sartu, eta sarreran, aurrez-aurre, Aita Santuaren poster handi batek egin zigun ongietorria.

“Ba al dakizu zer adierazten duen honek?”, galdetu zidan mali zi puntarekin lagunak.

“Bai, noski: antisandinista direla”, erantzun nion nik, ordurako ikasia bait nuen lekzioa.

Aita Santua *versus* Sandino, horrelaxe da askorentzat, 1983ko martxoan Joan Paulo II.a Managuan izan ondoren.

Eliz Hierarkiaren parte bat, Obando kardinala buru dela, aurrez-aurre jarri zaio Gobernu sandinistari. Kanpotik begiratuta, ematen du, parean dauden instituzioak direla bi-biak, Eliza eta Estatu. Ez da beti berdin izan. Liberazio-gudian, Somozaren aurka, FSLN eta gainerako indar sozialekin batean, eragin handia izan zuen Elizak, Obandok berak konkretuki. Gerora, sandinismoa indartu ahala, Eliza instituzionala gero eta kritikoago bilakatu da, eta urrunduz joan da. Urrunduz eta barrualdera indartuz. Aurreko erregimenarekin konprometaturiko zenbait gizarte-sektorek asko lagundu omen du horretan, hauek “asilo político” bat bilatzen bait zuten beren lurrean. Gizarte-maila batzu, merkatari, abeltzain, etc., oso deboto eta, han esan ohi den bezala, “misero”, meza-zale, bihurtu dira azkenaldian.

Babesaz gain, zenbait indar politikok, berak eskas duen indarra eta legitimitate historikoa bilatzen du Elizaren baitan, esaten dit José Argüellok, Alemanian ikasitako teologo laiko ezagunak, *Amanecer* aldizkariaren Zuzendariak. Elizak prestigioa du. Tes-

tinguru horretan, Eliza instituzionalak oposizioko alderdi nagusi bezala funtzionatzen du, oposizio politikoa aglutinatuz.

Ertamerikako Polonia?

Zenbaiten ustetan, Eliza instituzionaleko eta oposizio zibileko zenbait sektorek horixe bilatzen du, Nikaragua Polonia bailitza aurkeztea. Alegia, aginte totalitarioa, marxista-leninista, ateo, alde batetik; eta, bestetik, Eliza. Tartean, pertsegizio erlijiosoa. Humberto Belli, Vatikanon “Ez-sinestunen Kongregazio”ko aholkulari eta Managuan Obando kardinalearen aholkulari laikoa, eta oposizio politikoa dira tesi honen defendatzaileak. Baina Apezpikuek ez dute erabili nahi izan tesi hau beren idazki ofizialetan.

Behin eta berriz ageri da pertsegizio erlijiosoaren gaia: apaiz eta erlijioso espulsatuak lekuko, dozenaren bat. Inoiz edo behin Gobernu Sandinistak huts egin izatea aitortzen du José Argüellok, eta kritikatu ere bai, baina batez ere puntualizatu egiten du: “Ikusi egin behar da konkretuan nola jokatu duten apaiz horietako batzuk, oposizio armatuarekin bat eginik. Eta, gainera, Obandori gogoratu behar zaio, Gobernuak kanporatuak baino gehiago direla berak apaiz-lana egitea debekaturikoak. Pertsegizio erlijiosorik ez dago Nikaraguan, ezta antzekorik ere”.

Ikusi behintzat, pertsegizio erlijiosorik ez da ikusten. Lanaren antolaketan autonomia osoa du Elizak. Dagoena da, borroka politiko oso bizia, eta borroka hori erlijioaren eremura zabaltzen da. Elizaren eta Estatuaren arteko kontradikzioak ez dira erlijio mailan mamitzen, politikaren alorrean baizik.

Eskema poloniarra Nikaraguara egokitzeko, Carlos Huembes, CTN sindikatuko gidaria, Walesa nikaraguar bihurtu nahia ere izan zuten. Baina saioak porrot egin zuten. Eta orain, lea dergoa Obando kardinalak darama, Managuako Artzapezpikutegitik.

“Eskerrak Jainkoari eta Iraultzari!”

“Iraultzak, berekin duen exigentziarekin eta eskatzen duen entregarekin, kristau fedea eta bokazio erlijiosoa argitu eta garbitu egin dizkit. Kristau fedearen eta gure borroka politikoaren artean ez dago kontraesanik, baizik eta kontrara”.

Fernando Cardenal da honela hitz egiten didana, Vigil Etxebizitzako Ministrariaren etxean. Bat datoz senar-emazteak, kristau eta sandinista militante bi-biak

Kontradikzioa barik, kointzidentzia ikusten du kristau askok fedearen eta prozesuaren artean. Eta horrexegatik hartu du parte liberazio-gerran eta orain aginte-instituzioetan. Kristau (apaiz, erlijioso eta laiko) asko dago aginte-postuetan, maila ezberdinetan.

T. Borgek idatzi du: "Hemos afirmado y lo repetimos ahora, que el pueblo nicaragüense es revolucionario y cristiano. Son muchísimos los cristianos que participan con los militantes del Frente Sandinista de Liberación Nacional".

Datu berria, hau da: kristau eta iraultzaile dela batera herriaren multzo handi bat. Halere, kristauen partehartze hau, mugimendu antolatua baino areago, hautapen pertsonal baten emaitza da. Oinarriko komunitateek zerikusi handia dute aukera horretan, zalan-tzarik gabe. Horiexek izan dira kristau iraultzaileen mintegiak. 1970 hamarkadaren erdi-aldera agertu omen ziren Nikaraguan, Brasilen baino hamar urte eta piko beluago. Azkar hazi ziren, hori bai, Managuan bezala beste zenbait tokitan.

Oinarriko komunitateen mugimendu azkar honetan, Managuako Riguero auzoa izan omen da puntakoa, Uriel Molinaren eraginez, "la figura más sobresaliente de la «Iglesia del Pueblo»", V. Llosaren hitzetan. Uriel-en etxean bizi nintzen eta, pare bat bilera egin nuen komunitate hauekin. Zahar eta gazte, denak ziren sandinista. Jende gaztea eta eragileena kanpoan omen zen, batzu Frontean eta beste batzu uzta biltzen. Komentatu zidaten zein zaila gertatzen den mementu honetan instituzioak eta egiturak bizirik mantentzea, jendearen etengabeko mobilizazioaren erruz. Ni neu harrituta gelditu nintzen, ikusiz, zein sinpleki eta zein sakonki aldi berean irakurtzen zuten Biblia eta zein erraz lerratzen ziren bertako egoerara. Zirikatatu nituen bizi zuten praxi iraultzailearen eta fedearen arteko kontraesanei buruz. Eta denen ahotik erantzun bera jasotzen nuen: "Non dago kontraesana Ebanjelioaren eta pobreen eskubideen aldeko, justiziaren eta askatasunaren aldeko borrokaren artean?"

Kristautasunaren eta Iraultzaren arteko "sinbiosi" edo "sintesi" edo dena delako horrek kezkatzen ditu asko. Horrek, eta horren ondorioak ez gutxiago. Esan nahi bait da, ondorio politiko handiak ekar ditzakeela bateragintza horrek. Fernando Cardenalek sarri aipatzen ditu Che Guevararen hitz hauek: "Kristauek

iraultzan esku har dezaten egunean, orduan ezinezkoa izango da Latin Amerikan iraultza geratzea”.

Bi Eliza Nikaraguan? Nork defendatu nahi du tesi hau? Kristau iraultzaileek ez behinik behin. Aita Santuaren hitzek min handia egin zieten kristau sandinistei. Eliza instituzionalari Herri-Eliza kontrajarri zion Aita Santuak Managuako hitzaldi famatu hartan, aditzera emanaz, bata ona, benetakoa zela, eta bestea marxista, sasi-kristaua, sandinismoari saldua. Nikaraguako kristau iraultzaileek, aldiz, ez dute etenik nahi. Leialtasuna aldarrikatzen dute, leialtasun bikoitza: Elizari eta Iraultzari.

Ekonomiazko itolarria

Eskasia larriagotzen

ESKU-HUTSIK ez doa inor Nikaraguara. Aurretik egondakoren batek beti aholkatzen dizu zerbait eramateko, edozer gauza, dena behar dutela eta. Botika-piloa eraman nuen nik, eta, egunak pasa ahala, ez nekien zeini eskain. Lotsagarri ikusten nuen neure burua, neure huskeria horrekin, hainbeste premiaren artean. Basamortua ur-poto batekin ureztatzen ikusten nuen neure burua. Betiko pobrezia USAk inposaturiko blokeoa eta gerraren odolustea erants, eta atera kontuak.

Blokeoa, gainera, ez da atzo goizekoa. Luze doa. USAren kalkuluetan hauxe bide da Nikaragua menperatzeko kostu politiko gutxien dakarkion bide segurua. Inbasioak kontrakar eta errefus handia sortuko lioke munduan. Blokeoarena, bide luzea da; baina, azken buruan, herri txiki pobre batentzat jasanezina, fisikoki jasanezina eta, ondorioz, politikoki. Arrainari ura kentzea bezala.

Hori nahikoa ez bailitza, kontren eraso dago. Astunak dira kontrek uzta eta ondasunetan egiten dituzten kalteak eta hondamenak. Eta, okerrago, erregimena gerra-ekonomiara behartzen du, presupostuaren % 40 eta gehiago gerrara dedikatuz. Defentsa da prioritate nazionala: produkturik onenak eta lehenak Frontera doaz, Aberriaren defentsara.

Gaur egun ez da beti posible Nikaraguan nahi den janaria nahi den egunean aurkitzea. Pozik zegoen Pina, Etxebizitzako Ministriaren emaztea, bere etxera gonbidatu ninduenean, merkatuan

okela aurkitu zuela eta. Nahiz okela, nahiz arrautzak, nahiz esnea ez dago beti merkatuan salgai. Oinarrizko produktu-mordo bat razionamendu-sistemaz banatzen da: komuneko paperetik gasolinaraino.

Eskasia hori batez ere Managuan omen da problema sozial. Jendea ez dago ohitua erosteko errenkan egotera. Mendialdean, aldiz, hobetu egin omen da egoera: zer janik ere ez zuenak orain badu, dagoen gutxia hobeto banatzen delako. Oinarrizko kontsumoko zortzi produkturen banakuntz kontrola garantizatzea erabakia du Estatuak: artoa, frijola, sorgoa, arrosa, olio, gatz, azukrea eta xaboa.

Nikaraguan urtetan lanean ari den Dubois bilbotarraren koteak faro bat hautsia zuen eta atzeko partea kolpatua. Hiru hilabete bazeraman horrela, eta konpontzeko esperantza handirik gabe, piezak inportatu egin behar bait dira. Zorioneko blokeoa eta dibisa-falta! Berritu-ezin hau nabarmena da, nonnahi ageri da: etxetan, jantzitan, kaminotan, garraiotan... Zahar- eta pobre-eitea ematen dio hiriari. Publikapenek problemak dituzte papera lortzeko. Kotxeak ezin dira konpondu errepostu-faltaz. Kaminoetako zuloak gero eta handiagoak dira. Botilak erditik moztuz moldatzen dituzte edontziak. Botikak urri eta eskas dira ospitaleetan.

“Noiz arte iraun dezake egoera honek, lehertu gabe?” galdezen diot Xabier Gorostiaga ekonomistari. Arazoa politikoa omen da funtsean. Noiz arte iraungo duen USAren eraso honek, zer forma hartuko duen etorkizunean. Iraupenean bide datza Nikaraguaren garaitzapena, Gobernuaren ustetan. Ezinezkoa omen da ekonomiazko lege klasiko eta ortodoxoen arabera esplikatzea Nikaraguak oraintxe bertan nola irauten duen zutik: 77-79ko gerrak utzitako ekonomia hondatuarekin, inflazioarekin, blokeoarekin, kanpo-zorrarekin, esportazio ezteusarekin... Egunero mirakulu asko gertatzen omen da Nikaraguan, esaten zidan X. Gorostiagak.

Merkatu beltza

Nola geldituko merkatu beltzera joan gabe? “Mercado Oriental” du izena, Managuako ekialdean dagoelako; baina, egia esan, eman ere, Ekialdeko merkatu horietakoa ematen du, kolore eta gutzi.

Hemen ez dago errenkan egon beharrik erosteko, baina bai faltrikera bero izan beharra. Gobernuak ezarritako prezioetan sal-

tzen dituzten dendetako apalak erdi-hutsik dauden bitartean, hemen ugari da ia denetik. Prezio oso altutan, hori bai, zazpi edo hamar aldiz garestiago batere problemarik gabe. Eskandalizaturik mintzatu zitzaidan laguntzailea, botikekin ere espekulatu egiten dutela salatuz: farmazietan ezin aurki daitezkeen botikak hantxe zeuden, aurreko dendako apaletan.

Pobreziaren miseriak! Langilearen egiazko soldata babestearren, Gobernuaren aginduz, artikuluek prezio merke finkoa dute; baina espekulazioak, kontrabandoak, sare paraleloa sortu du, aberatsaren mesedetan. Batek baino gehiagok uste du, sozialismoa erdizka bakarrik ezartzeagatik dela hori, eta ez zegokeela horrelarik ekonomia nazionaldu balitz.

Ondo beltza da dolarraren merkatua ere. Estimazio handia du dolarrak Nikaraguan: amerikarrak txarrak dira, baina dolarrak onak, zioen hark. Dolarraren aldaketa ofizialak berak bi prezio ditu Nikaraguan: aireportuan dolar baten truke 27 kordoba dituzu, eta hirian 50. Ez nuen sekula ulertu alde hau. Baina alde hori ezteusa da, merkatu beltzeko prezioak ezaguturik. Ni han nengoe-la, 600 kordobatan erosten zizuten dolarra. Kontrari laguntzea bezala ikusia dago merkatu beltzean dirua aldatzea. Baina prezio ofiziala baino gehiago ordaintzeko edozein sandinista ere pronto dago.

Sozialismo originala

Ekonomian ere sozialismo originala sortu eta lortu nahiko lukete sandinistek: merkatu-ekonomia gorde, baina sektore publiko zabala bihurtu ekonomia osoaren gidari eta motor. "Ekonomia misto" deritzana.

Xabier Gorostiaga omen da ekonomia mistoaren aita, baina bere ahotik ez dut jakin. Entrebista luzea egin nion aldizkarirako, zenbaki honetan bertan argitaratzeko. Han esplikatzen du luze eta zabal zertan datzan ekonomia hori, horretarako arrazoiak eta etorkizunean landu beharko diren gai eta bide berriak.

Esan bezala, bide sandinistatzat joa den projektu iraultzaileak bi eratako ekonomia eraiki nahi du, merkatukoa eta sozializatua, baina hegemonia estatal eta sozialarekin. Banka eta Aseguro-Konpainiak nazionaldu egin ditu. Somozatarrek abandonaturiko lur eta ondasunak konfiskatu egin zituen. Zein filosofiarekin?

Konfiskazio horiek direla eta, lur-erreforma dela eta, Robelok, oposizio politikoko leaderrak eta gero borroka armatura pasa zenak, sandinismoak jabego pribatua desegin nahi zuela salatu zuen eta Junta bertan behera utzi. UNAG baserriarren sindikatuko idazkariak eman zidan esplikazioak beste zerbait azpimarratzen zuen: Somozatarren lurrak Estatuak hartzea ez da jabego pribatuaren aurkako ekintza, jadanik beren burua saldua zuten lurrak bereganatzea eta errekuiperatzea baizik. Nola hori? Ondasun horiek Bankuarekin zorpeturik eta hipotekaturik zeuden, beren balioa bost aldiz inoiz. Banka nazionaltzean, zorren ordainez lur horiek errekuiperatu egiten ditu Estatuak; hori da dena.

Lur-erreforman, malgutasuna izan da printzipioetako bat. Formula desberdinak eta, askoren ustetan, ideologikoki kontrajarriak onartu ditu Estatuak, hala nola, sektore estatala (lur landuen % 20), sektore kooperatiboa (lur landuen % 40-50), eta jabego pribatuko sektorea (% 30-40).

Enpresa-gizon guztiak ez ziren Miamira joan, Kuban bezala. Batzu Nikaraguan bertan gelditu ziren, eta ez beti oposizioan. Oposiziokoak COSEPen biltzen dira: "Consejo Superior de la Empresa Privada". Kritiko dira Gobernuaren politikarekin. Fikzioa omen da sektore pribatua Nikaraguan.

Salakuntza eta istiluon gainetik edo azpitik, garrantzi handiko aldaketa bat gertatu da Nikaragua berrian, eta da, burgesiak aginte finantzario eta politikoa, biak, galdu dituela Bankaren nazionaltzearekin eta aginte sandinistaren nagusigoarekin.

Miskitoen genozidioa?

"Faltsua da Kosta Atlantikoko arazo etniko-nazionala aginte sandinistarekin hasten dela dioen tesia. Kostako arazo etniko-nazionala seriotan hartu duten lehenak, geu izan gara. Sinesterazi nahi den baino sakontasun historiko handiagoa dago arazo honetan. Aspal-didanik dator problema".

Mintzo dena Manuel Ortega da, antropologoa, Kosta Atlantikoko arazoak aztertzeko eta bideratzeko Gobernu-Batzordekoa. Batzorde Nazional hau bost espezialistak osatzen dute, Luis Carrión komandantearen menpe.

Lau ordu egon nintzen honekin. Beste antropologo batekin ere luze mintzatu nintzen, Amílcar, miskitoen arazoa ikertzen duena berau ere. Gauza bera azpimarratu zidaten biek: arazo hau, oraingoa barik, aspaldikoa dela, eta, tertzioz ulertzeko, historiara jo behar dela lehenik, arazo honek erro luzeak, sakonak eta bihurriak dituelako.

Historia

Historia horretan lehen datu inportantea, hauxe da: Pazifikoa espainolek konkistatzen eta dominatzen dute, eta ingelesek Atlantikoa, bakoitzak bere dominazio-eredua inposatuz. Gerora ere bi historia desberdin biziko dute bi herrialde hauek, bien arteko isolamendua delarik berezitasunik nabarmenena. 1893an, Zelaya lehendakaria da Estatu Zentralaren aldetik Kostarekiko proiektu koherentea duen lebena, baina proiektu diskriminatzaile eta zantpatzailea: Pazifikoarekin lotzen du Atlantikoa, departamentu horri bere izena emanez.

Geroko historian, bi datu gehiago nabarmendu behar dira. Bata, Konpainia amerikarrak sartzen direla han, meatzeak, bananak, etc., esplotatzera, "economía de enclave" deitzen dena ezarriz, eta, ondorioz, gainerako Nikaraguarekin harremanik sortu gabe. Bigarren faktore inportantea, inportanteena agian, Eliza moraviarren influentzia da. 1849 aldera sartzen dira artzain moraviarrak, hasieran Alemaniatik, baina gero Ipar Amerikatik. Eliza protestante hauen garrantzia ikaragarria da alde guztietatik: ideologikoki, bi-zi-ohituretan, aginte-eraketan, hizkuntza miskitoaren finkatzean. Osasun- eta hezkuntz zerbitzuak ere berek eskaintzen dituzte. Prozesu honen buruan, Eliza moraviarra Estatu txiki bat bilakatzeko da Kosta Atlantikoan, zerbitzu guztiekin.

Jatorriz, ohituraz, kulturaz, hizkuntzaz, erlijioz, ekonomi sistemaz izan dira desberdinak Atlantikoa eta Pazifikoa. Eta arazoa are gehiago zailtzeko, elkarrekiko komunikaziorik gabe. Miskitoentzat, Managuakoak "espainolak" dira gaur ere.

Mosaiko etnikoa da Kosta Atlantikoa

Miskitoak 70 mila dira Zelayako Iparraldean, eta 30 mila Hondurasko lurretan. Creol edo beltzak datoz bigarren lekuan kopu-

ruz: 30 mila Zelayako Hegoaldean. Sumoak (hiru gutxiengo linguistiko) 15 mila dira, mendialdean. Carifonoak, 1.500 bizilagun, bi herritan bizi dira. Ramak 800 bat izango omen dira eta Tana Tay uhartean bizi dira.

Ezein nikaraguarrek ez zekien orain arte aniztasun eta aberastasan honen berri, unibertsitari eta antropologoren bat salbu. Sandinistek ustekabean aurkitu dute aberastasun hau, eta problema bihurte zaie.

Sandinismoaren autokritika

1979ko Garaitzapena lortu eta gero, aginte berriak bere egiturak ezarri nahi ditu nazio berrian (Pazifikoan zein Atlantikoan). Badoaz Managuako mutilak, Kosta Atlantikora aginteak bidalita, "iraultzaren berri ona predikatzer". Eta ezagutzen ez duten herri batekin egiten dute topo. M. Ortega antropologoak honela irudikatzen dit sandinisten eta miskitoen elkarrizketa hori:

- “Venimos a decirlo que ya somos libres”.
- “Libres de qué?”.
- “Del Imperialismo!”.
- “Pero si los gringos son buenos”.
- “Entonces Uds. son contras, pues!”.

Bi hizkera, bi sentiera, bi historia aurrez-aurre, elkar ulertu ezinda. Iraultza egin duen herri bat eta enteratu ere egin ez diren indio-etnia batzu.

Arrazoï asko direla medio, Atlantikoa ez zen intsurrekzio-mugimenduan sartu. Hori bateko. Eta besteko, hara doazen sandinistak Pazifikoan heziak dira, mentalitate chauvinista, zentralista eta etnozentrikoan. Horrez gain, ulergaitz egiten zaie Inperialismoa nikaraguar batek ontzat ematea, 50.000 hildako kostatu zitzairen gerra egin-berriaren ondoren. Kultura eta historia deberdinetako bi jende dira. Elkarrekiko mesfidantza sortzen da, beraz, heldu-berri diren iraultzaileen eta han bertan dauden aginteen artean. Lehen konfrontazioak berehala piztuko dira: artzain moraviar baten kanporaketa, "hizkuntzen Gurutzada", Misurasata-ren jarrera etnizistak... direla tarteko.

Konfrontazioen jatorria ulertzeko, bada, kontutan eduki beharrekoak dira bai sandinisten jarrera eta bai bertakoena. Sandinistek buru zentralista eta etnozentriztas heldu zioten arazoari, eta problema horren ezagutza sakonik gabe. Honetan legoke gakoa: Estatu txiki baten antzo, zerbitzuak oro eskainiz, funtzionatzen duten erakunde tradizionalak (elizek), Estatu Zentralaren etorrarekin, arriskutan ikusten dute beren hegemonia, eta erreakziona-tu egiten dute.

“Hau denau berez arazo politikoa da; baina, zoritxarrez, luzarora gabe, problema politiko hau militar bilakatzen da, Inperialismoaren erruz”, esaten dit M. Ortega antropologoak.

Eta soluzio militarrekin, hobetu beharrean, gaiztotu egiten da giroa: Misurasata-ko leaderrek, Fagoth eta Rivera-k, ihes egin eta armak hartzen dituzte; miskito asko Hondurasara doaz, etnia berekoen artera.

Zergatik, ordea, soluzio militarra?

Hondurasko miskitoen lurretatik hasten dira 1981ean eraso eta eraso Somozaren goardia-ohiak. Miskitoen lurraldea oihana da, eta oso erraza da gorde gabeko mugok gurutzatzea Hondurastik Nikaraguara eta atzera. Berebat, erraza gertatzen zaie miskitoen deskontentuaz eta haserreaz baliatzea, aginte sandinista atakatzeko.

Gobernu Sandinistak muga inguruan lur-hutsarte edo “no maens land” ezartzea erabakitzen du, kontren joan-etorriak eragozteko. Horretarako, gerra-operazioetarako zona bat prestatzen du inguru guztian, lurralde horietako miskitoak 200 km. Hegoaldera ekarriz. Kokaleku barrietan jartzen dituzte, “asentamiento” eztabaidatu horietan, hain zuzen. Herri berri batzu bezala sortzen dituzte honela. Coco ibaiaren ondoko herritxoetatik 4.000 bizilagun mugitu zituzten Hegoaldera, bizileku babesagoetara. Neurri hauekin, militarri beharrezkoak izan arren, politikoki miskito askoren haserrea areagotu besterik ez zen egin, zertan esanik ez.

Miskitoen arazo honetan, unerik txarrenak atzean gelditu direla ematen du. Hobetzearen ezaugarri bezala eman daitezke: Gobernuaren amnistia, Brooklin Rivera leader armatuaren negoziaketa-guraria, Autonomi Estatutuaren projektua... Ni han nembilen egunetan, B. Rivera eta L. Carrión komandantea Bogotan bildurik zeuden, negoziatzen. Fagoth-en aurka, miskitoen problema Iraul-tzaren barruan konpon daitekeela uste du Riverak.

Gobernu sandinistaren jarrera

“Iraultzak uste du, ez dagoela kontraesanik herriaren parte batek, minoriek, historikoki ukatu izan zaizkien eskubideak izan ditzaten.

Iraultzak aitortzen du, lehenengo, Kostako problematika ez zuela sakonean ezagutzen. Bigarren, aitortzen du, Kostako errebindikapen legitimoak Iraultzaren barruan bete daitezzen ez dagoela kontradikziorik, hain zuzen zapalkuntza eta esplotazioa deuseztea bait da Iraultzaren helburua. Hirugarren, Iraultzak erabakitzen du, Kosta Atlantikoko minoriek badutela eskubiderik Autodeterminazio-printzipioa autonomi eran erabiltzeko: hizkuntza, kultura, organizazio-moduak, izadiarekiko harremanak (ekonomia) ere beren kasa soluzionatzeko”.

Gobernuaren filosofiaz eta pantsamoldeaz galdetzean, M. Ortegar bapatean jaulki dizkidan hitzak dira.

Autonomi Estatutua eta Autodeterminazioa

INIES edo “Instituto Nicaragüense de Investigaciones Económicas y Sociales” en Zuzendari euskaldunak, X. Gorostiagak, esperantza handiak ditu Autonomi Estatutuan:

“Hainbeste kritikatu diguten arazo hori berori, beren aurka etorriko zaie orain, *boomerang* bailitza. Orain arteko Autonomi Estatutuak jo eta pasa egingo ditugu, eredia sortuko dugu, Autonomi Estatutu modeliko bat egingo dugu. Horrek bai izango duela eragirik inguruan, Guatemalan adibidez, hango etnia ugarien artean”.

Ez da maniobra politikoa, ez dira hitz hutsak. Ez dakit orain artekoak onduko dituen ala ez, baina martxan dagoela, bai, badaikit, aurreprojetuaren kopia bat eskutan bait dut.

Aurreprojetua ezezik, projektua bera ere nahikoa aurreratua dago, nonbait. Kostan bertan ari dira eztabaidatzen, eskualdez-eskualde, batzordez-batzorde.

Autonomia horren filosofia politikoaz interesaturik, autonomiaz eta autodeterminazioaz galdetu diot M. Ortegar:

“Arazo etnikoa, Nikaraguan, bi ikuspegitan begiratu behar da, kanpokoa eta barrukoa. Kanpora begira, kontutan eduki behar da Herri-Fronte Sandinistaren borroka osoa Inperialismoarekiko autodeterminazio-eskubideak garantizatzearen izan dela.

Barruko ikuspegian, aldiz, beste hau kontsideratu behar da: Berdintasun-erlazioak sortzeko premia du Iraultzak eta gutxiengo nazionalen garapena eta bermaketa prozesu demokratiko zabal batean sustatzekoa.

Autodeterminazio-printzipioa ezin dugu erabili kanpora begira bakarrik, Inperialismoari buruz soilki. Iraultzaren barruan ere erabili behar dugu, gure herriko gutxiengoen eskubideei eta errebindikapenei leku eginez. Pentsalari zahar baten printzipio zaharra asumitzen bait dugu, hots: beste nazio bat zapaltzen duen nazioa ez dela librea.

Guretzako, gutxiengoen eskuhartzea ez da akzidentala. Baldin Somozismoarentzat printzipio baten herria zatikaturik edukitzea, antolaketa saihestea, herriaren partehartzea ebitatzea, guretzat alderantziz da.

Batasun nazionala herri barneko berezitasunen begirunearen printzipioan sakontzen duen neurrian bakarrik irauin dezake zutik iraultza honek. Herria ez da homogenoa, eta hau aintzat hartu behar dugu herrian dagoen aniztasunaren barruan batasun nazionala eratzeke”.

Miskitoen batasuna eta Ertamerikako iraultza orokorra

Esana dugu, miskitoak bi Estatutan banatzen direla, Nikaraguan eta Hondurasen. Nori ez datorkio gogora euskaldunon kasua? Eta beste askorena? Euskal Herria gogoan, noizko den miskitoen batasuna Gobernuaren ustetan, galdetzen diot M. Ortigari.

“Iraultzaren oraingo eta geroko perspektiben barruan, ez dugu ikusten posibilitaterik Hondurasko miskitoen arazoa Nikaraguatik soluzionatu ahal izateko.

Miskitoen parte bat Hondurasa eta beste bat Nikaraguara banatu zuen prozesua, hazkuntza bidean dauden nazio hauen eraketa-moduan, prozesu tipiko historikoa da. Muga zuzenen muntaia hori, guk heredatu egin dugun egoera koloniala da.

Hondurasko arazo miskitoa mugitzen hasten bagara, mila aitzakia emango dugu gure Iraultzaren salakuntzarako: espantsionismoa, gutxiengo nazionalen zirikatzea, etc.

Esan dezagun, errespetatu egiten ditugula aurkitu ditugun mugak. Guk espero dugu, gero, ez dakigu noiz, 3000. urtean, 2500.ean, 2000.ean edo 1990.ean, Iraultza ertamerikarra gertatuko dela, eta orduan muga eraketa berri bat izango dela, non mugek printzipio etnikoak kontutan edukiko bait dituzte”.

Eta zeintzu dira kontrak?

“Kontra” bere jorretan zabaldu da munduan: “Kontrairaultza” eta “Kontrairaultzaile”ren laburdura.

Baina zer dira kontra hauek? “Askatasunaren aldeko guda-riak”, Reagan-ek esan bezala, ala “mertzenariak”, Managuako aginteak uste bezala?

Jatorri eta organizazio desberdinak ditu kontrairaultzak.

Nikaraguako askapen-gerra amaitu eta bi urtetara hasten dira kontren lehen erasoak.

Somozaren goardia nazional izandakoek, CIAren laguntzaz, FDN (Fuerza Democrática Nicaragüense) eratzen dute Hondurasen, eta Pazifikoa erasotzen dute Iparraldetik. Gutxienez 12.000 lagun armatu omen dira.

MISURA (Miskitoak, Sumoak eta Ramak) fundatzen du Fagoth-ek Hondurasen. 2.000 lagun omen dira, eta Atlantikoaren Iparraldean kokatzen dira.

ARDE (Acción Revolucionaria Democrática) da hirugarrena, Robelok eta E. Pastorak sortua. Talde honek ere ba omen ditu 8.000 bat lagun Hegoaldean, Costa Ricako mugan.

Denetan indartsuena eta eratuena, FDN da. Lehena izateaz gain, beronek jasotzen ditu zuzenean amerikarren laguntza ekonomikoa eta logistikoa.

Kontrako “ardi beltza” E. Pastora da, “Comandante Cero” izana, ARDEtik ere kanpora bidali-berria. Pastorak, izan ere, bere burua sandinistatzat jotzen du, oker ala zuzen, eta antisomozista porrokatua izan da, hori seguru. Amerikarren laguntza eskuratu ahal izateko ere, ez du sekula onartu FDNko somozistekin bat egitea.

Zein da kontraren gerra-planteamendua?

Kontrairaultza ez da aginte hartzeko sortu, Managuako aginte sandinista ekonomikoki eta politikoki desestabilizatzeko baizik. “Guerra de desgaste” planteatzen du kontrak. Esan bezala, bi helburu estrategiko ditu borroka honek: bat, ekonomia nazionalaren oinarriak erosionatzea; eta bi, desestabilizazio politikoa probokatzea.

Hori lortzearren, herriak eta produkzio-zentruak atakutzen ditu kontrak, batipat kooperatibak eta *hacienda* estatalak. Hildakoez gain, kostu ekonomiko handia suposatzen dute eraso horiek.

Paraleloki, lan ideologikoa bi ildotan zuzentzen dute: "komunista" eta "ateo"tzat salatzen dituzte sandinistak, eta prozesu iraultzailearen edozein hutsegite edo ahuldade kapitalizatu egiten dute derrepente.

Nikaraguako herriren bat beren eskuetan hartzeko saio bat baino gehiago ere jo dute, FDNk batez ere, baina E. Pastorak ere bai. Justu ni han izan nintzen egunetan, Iparraldeko Jalapa herria hartu nahi izan zuten. Asmoa? Gobernu behin-behineko bat lurralde horretan muntatu eta negoziaketara behartu Gobernu, Salvador-en gertatzen denaren eskema erabiliz. Saioek ere huts egin dute orain artean, eta badirudi dagoeneko asmo horretan amore eman dutela, arrazoi politiko eta militarrek direla tarteko.

Ezaguna, agerikoa eta aldarrikatua da Reagan-ek kontrei eman ohi dien laguntza. Inork ukatzen ez duen laguntza, bestalde. Balorazioetan datoz desberdintasunak: batzuri ondo iruditzen zaie eta beste batzuri gaizki. Aitortu, denek aitortzen dute.

Esan daiteke, Reagan, kontraren aitabitxi ezezik, aita ere badela. Izan ere, Reagan-en aurretik, J. Carter-ek ez zuen berdin jokatu Nikaraguarekin. Honen garaian, 1979ko Garaitzapenetik urte t'erdira, Nikaraguarari "laguntza ekonomikoa" eman ala ez eztabaidatzen zen USAn, eta eman ere egin zitzaion.

Jarrera gogorra Reagan-ekin nagusitu zen. Jadanik 1981ean, abenduan, lehen 19 milioi dolarrak ematen ditu Reagan-ek, Nikaraguaren desestabilizazio-projektuaren barruan, asesore militar argentinarrei eta gero CIAri eskuhartze handia eskainiz eta Hondurasen militarizazioari hasiera emanez. Jarrera berri hau, beraz, hirutan mamitzen da: kontraren indartzea, Hondurasen finkapena, eta indar amerikarren presentzia gero eta handiagoa inguruan. Geroztik, bide beretsutik jarraitu du jokaera honek: 24 milioi dolar kontrari eman zaharra ez da Reagan; Hondurasko lurraldean 5 mila soldadu amerikar omen daude; abioientzat 3 lurreratze pista azkar egin ditu USAk Hondurasen.

Aitabitxitasunaz gain, Reagan-en aitatasuna aipatu dugu. CIA-ren laguntzaz eratu zela FDN, ezaguna da, 15 edo 20 tokitan zeuden somozistak leku batean eta organizazio batean bilduz. USA-

ren laguntza ekonomiko eta logistikorik gabe, badirudi kontrak ez lukeela luze irauterik.

“Baina kontrak ez al du barruan laguntzarik?” —galdetzen diot X. Gorostiagari, nereko pentsatuz, errazegia eta eroso dela deskalifikazio-sistema hori, kanpokoei errua ematea, alegia.

“Horixe badutela laguntzarik barnean! Baina Nikaraguako populazioaren zenbait sektorek kontrari eskaintzen dion sustapen logistikoa bigarren mailakoa da eta ez oso esanguratsua.

Lasai esan daiteke egungo indar antisandinistek ez zuketela sekula lortuko antolatzea eta finkatzea, CIAren laguntza finantzariorik eta bateratze-ahalmenik gabe.

Gaur bertan ezein talde kontrak ezin du bi hilabete iraun Nikaraguako mendietan, kanpotik hornitzen ez bada E. Pastora bera behin eta berriz erretiratu beharrean aurkitu da arrazoi horrexegatik.

Ipar Amerikaren laguntza hori eta herriaren aldetiko sustapen eskasa: hona bi arrazoi, funtsezko kontra mertzenarizat jotzeko”.

Reaganen salakuntzak, eta interesak, Nikaraguaren aurka

Zortzi tesitan laburbiltzen du Tomas Borge komandanteak Inperioak Nikaraguaz duen jarrera ideologiko-politikoak:

1. tesia: Ekialde/Mendebaldeen gudalekua da Nikaragua.
2. tesia: Nikaraguak USAren seguritate nazionala mehatxatzen du.
3. tesia: Nikaragua gerra zibilean ari da.
4. tesia: Nikaragua gaur kubatarren eta sobietarren satelitea da.
5. tesia: Nikaraguan diktadura totalitarioa dago.
6. tesia: Nikaraguak giza eskubideak zapaltzen ditu eta miskitoen aurkako zapalkuntza praktikatzen du.
7. tesia: Nikaraguan erlijio-pertsegizioa dago.
8. tesia: Nikaraguak Ertamerikako armamentua laguntzen du.

Nago, tesi hauetako batzu Reagan-ek berak ere ez dituela sinesten. *Ad hoc* muntatuak dirudite. Salakuntza hauetako batzuk ustelak ematen dute, amerikarren ahotan ere.

Egiatzko eta benetako eritziak —eta interesak!— 1982ko testu honetan ager litezke:

“Gure interesa, honetan datza: Ertamerikan Estatu demokratikoak sortzean eta sustatzean, beren arazo politikoak eta ekonomikoak kanpoko ingerentziarik gabe eramateko gauza izango direnak. Estrategia mailan Kubako ereduko Estatuak ez gehitzean dago gure interesa, hil ala bizikoa, subertsiorako plataforma izango bait lirarteke, itsasbideak bitalki arriskutan jarriko bait lituzkete eta gure mугetan edo inguruan mehatxu militar zuzena bait lirarteke.

Bere osoan, kolpe latza litzateke guretzat hori gertatzea: gure ekonomian desantolaketa ekarriko luke eta USAra etorkin klandestino mordo bat ekarriko liguke, ondorioz. Saiatu beharra dugu, epe laburrera, eragin sobietiko-kubarra eskualdetik eliminatzen eta, epe luzera, politikoki egonkor eta influentzia horiei eusteko gai diren Gobernuak ezartzen”.

Testu argigarri hau 1982ko apirilekoa da, USAko Segurtasuneko Nazio-Batzordearen dokumentu batetik jaso, 1984ean titulu honekin argitara emana: “1984eko urte fiskala bitartean Ertamerikari eta Kubari dagozkienetan USAren Politika. Laburpena”.

Argi eta garbi dager hemen, zein den Ipar Amerikaren filosofia politikoa eta zeintzu interesak, benetako interesak: Monroe doktrina (“Amerika amerikarrentzat”), Segurtasun Nazionalaren doktrina (gobernu sozialistarik ez), eta etekin ekonomikoak.

Gainerako guztia, muntaia da.

Gerra zibila Nikaraguan?

“Gerra zibila Nikaraguan?”, galdetzen duenari beste galdera batez erantzuten dio T. Borgek: “Egon al daiteke gerra zibilik bandoetako bat kanpoan antolatu, gidatu, armatu eta finantzatzen denean?”.

Bi tesi antagonista daude hemen aurrez-aurre: gerra zibila *versus* agresio-gerra. Gerra dagoela, hori segurua da, baina zer gerra-mota?

Batzurentzat, herriaren parte bat aginte iraultzailearen aurka altxatu da, arma eta guzti. Beraz, bi bando daude: aginte iraultzailea, batetik, eta bestetik, kontrak. Salvador-en bezalatsu, ideologikoki justu alderantziz bada ere.

Beste batzurentzat, gerraren jatorria zein den ikusi behar da: Nikaragua erasotzen duten indarrak Hondurasko eta Costa Rica-

ko lurretatik datoz eta berauen autore intelektuala eta materiala USAko Gobernuak da. Nikaragua ez da Salvador. Han, lurraldearen hirutik bat bere eskuetan du gerrilak, eta barne-gerra bat da, Nikaraguan ez bezala.

Gerra zibilaren tesiarekin jokatzeko du Eliza ofizialak, bi bandoen arteko elkarrizketa proposatzen duenean. Gerra zibilaren tesia defendatzen du Reagan-ek, eta horixe komeni zaio, kontrak laguntzeko eta Nikaragua blokeatzeko edota interbenitzeko.

Arazo giltzarrizkoa da gerraren kalifikazioa.

Ni han nengoela, Reagan-ek atzera eskatu zuen elkarrizketa Gobernu sandinistaren eta kontren artean, Eliza katolikoa bitarteko dela. Salvador-en mimetismoa berriz ere: Elizaren bitartekotzaz, Duarteren Gobernuak eta FLMN mahaiaren inguruan bildu bait ziren.

“Horrelakorik Gobernuak ezin onar dezake inola ere Nikaraguan —komentatzen dit Luz Beatriz Arellanok—. Bi arrazoigatik: Elizaren Hierarkia ez da neutrala, Obando beretarra dute, baina batez ere kontrak ez duelako legitimitaterik. Daniel Ortégak errepikatu ohi duen bezala: “Guk ez dugu txotxongiloekin hitz egingo, marionetak maneiatzen dituenarekin baizik, Reagan-ekin”. Gobernuaren jarrera, betikoa da: Elkarrizketa? Bai horixe, segi dezagun Manzanilloko elkarrizketekin”.

Manzanillo Mexicoko herri bat da, eta hantxe bildu ziren Nikaraguako eta USAko ordezkariak, aurrez-aurre eta bitartekorik gabe hitz egiteko, 1984eko ekainean. Baina 1985eko urtarrilean bertan behera utzi zituen elkarrizketok USAk, Nikaraguako kasua galdutzat joz.

Gauza bat da opisizioarekin elkarrizketa, politikoarekin nahiz Obandorekin; eta beste gauza bat, arras ezberdina, kontrarekin. Oposizioarekin noiznahi dituela solasaldiak, esan zidaten. Bestalde, ezagunak dira MISURAKO leaderretako batekin, B. Rivera-rekin, negoziaketetan sartua dagoela. Baina sekula ez kontrarekin, kontra bezala. Mota horretako elkarrizketa, Gobernuaren ahulda-de-seinaletzat jo beharko litzateke.

Gerra zibila Nikaraguan? Ez diot han egon eta ibili den inori entzun tesi horren defentsarik. Managuan baretasun osoa dago. Telebistatik du batek gerraren berri. Hondurasko mugara egin genuen ibilaldian ere, muga-ingururaino, ez zen gerraren aztarrenik, ez hondamenditan eta ez kontroletan. Muga-inguruetan kokatzen den gerra da Nikaraguakoa, kanpotik barrurakoa. Mugetatik urru-

tiago ere, barrualdera, badira “erresistentzi boltsa” deitu lurralde batzu, non kontrak erraz mugitzen bait dira herriaren laguntzaz. Baina —arazo inportantea!— kontrak ez du lortu oraino lurralde nikaraguarrik bereganatzea, behin eta berriz horrexetan saiatu arren. Lurralde-puska bat lortu izan balute, “behin-behineko gobernu” bat eraikiko zuketean, eta, gerra zibilaren planteamenduarekin, negoziaketa exigituko zioketen Managuako Gobernuari.

Nikaragua: Kuba-bis?

Projektu sandinistaren alde onak aipatzen dituzunean, beti aurkitzen duzu alboan zu baino askoz azkarrago bat, zuk baino urrunago ikusten duena, Nikaraguara joan beharrik ez duena datuak eta informazioak biltzera, ulertzen saiatu beharrik ere ez duena, zuk baino sakonago aztertu duena errealitatea, itxuratan eta hitzetan fidatu gabe. Honelako bat baino gehiagorekin egin dut topo, eta honelatsu hitz egiten dizute: “Sandinismoak ez du oraino bere benetako aurpegia erakutsi, ahulegia bait da. Pluralismo hori, malgutasun hori, eta gainerako guztia behin-behineko kontzesioak dira. Harik eta bere burua indartsu ikusi arte bakarrik iraungo dute. Kareta kendu egingo du gero. Begira Kubara: Fidelek beste horrenbeste egin zuen. Erregimen hori, itxura engainagarri guztien azpitik, marxista-leninista da, eta Nikaraguan, egon seguru, dikadura ezarriko du. Denbora testigu”.

Auskalo zer bilakatuko den Nikaragua! Faktore askoren eraginpean dagoela Nikaraguaren etorkizuna, eta igarle-dohainik ez dudala, erantzun ohi dut horrelakoetan, eta kitto. Zer esan besterik!

Geroa gerorako utziz, interesgarria —benetan orain interesa duena— zera da: antzematea, zein den Nikaraguako borrokaren jatorburua, izaera, funtsa: Ipar/Hego borroka al da, edota Ekialde/Mendebalde borroka? Alegia, Hirugarren Munduko herri batek bere azpigarapena gaintzeko egiten duen iraultza, ala marxismo-leninismoa ezartzeko borroka?

Reagan Administrazioak uste du, Ertamerikako problemak oro komunismoak fomentatzen dituela. Komentziturik dago, bultzada komunistaren puntu berria dela Nikaragua, eta Kubatik eta Nikaragutatik abiatuak, Salvador-a eta Guatemalara zabalduko duela

Soviet Batasunak bere lana. Marxismo-leninismo hori ez dadin gehiago heda, sandinismoa deuseztatzea erabaki du Reaganek.

Arras kontrako ikuspuntua du T. Borge komandanteak:

“Gosea ez da Ekialde Mendebaldeen arteko istilua. Gosea, diktadurazko erregimenen eta gure herrien arteko istilua da; herri hauek, gainera, justiziaren gose dira. «El General Hambre» da herri ertamerikarren Komandante Nagusia. Ekialde/Mendebalde istiluaren sofisma hau, bada, gezur deliberatua da, gure herrien aurkako agresioak justifikatzeko. Beste termino batzutan planteatu behar da arazoa: Gure borroka hau baieztapen nazionalaren borroka da eta borroka honen helburua azpigarapenetik, gizarte-injustiziatik eta zapalkuntzatik irtetea da”.

Nire inpresioa da, bueltakoan, ez dagoela Moskuraino joan beharrik, ezta Kubaraino ere, Ertamerikako arazo, auzi, istilu, gatazka hain ugarien kausa edo arrazoien bila: gosea, langabezia, injustizia, opresioa dira Ertamerikako herrien erreboltaren zergatiak.

Justiziaren, duintasunaren eta askatasunaren alde herriaren borroka luze hori kontutan ez edukitzea, geure buruak Ertamerikako istiluen mamia tutik ez ulertzera kondenatzea da. Herri-multzo handiari oinarritzko giza eskubideak ukatzean eta gizarte-injustizian errotzen eta mamitzen dira istilu horiek.

Besterik da, gatazka horien nazioarteko dimentsioa, arazo geopolitiko, ez ahantz ez bazter daitekeena, noski. Eta, USAren interes. nazionalengatik eta jarrera inperialista hertsiaigatik, bigarren mailatik lehen mailara etor daitekeena, honela Nikaraguako Iraultzaren jatortasuna arras aldaraziz. Hegoaren eta Iparraren arteko borroka Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko borroka bilaka daiteke; baina, oro har, ez dirudi Nikaraguaren desioz izango litzatekeenik hori, eta bai USAren politikaren erruz.

Vietnam berri bat?

“Iaz bertan amerikarrek atzera egin zuten azken mementuan eta ez zuten Nikaraguaren inbasioa aurrera eramanez, jabetu egin zirelako ez zela paseo bat izango, jakin egin zutelako nikaguar guztiok pronto geundela geure aberria eta iraultza defendatzeko. Eta ez zuten Vietnam berri batean sartu nahi izan.

Mobilizazio izugarria egin genuen: 300.000 fusil banatu genituen herrian, jendearen artean, refugio edo lurpeko babesak egin genituen etxez-etxe. Nikaraguar bakoitzak bezekien zer egin inbasioan.

Gauza bat da kurioa Nikaraguan: Ipar amerikarren aurka, arierio politikoak ere gurekin bat datoz, aberriaren alde”.

Fernando Cardenalen hitz hauen antzekoak, makina bat jendერი entzun nizkion Nikaraguan barrena.

“Baina benetan sinesten al duzue inbasioaren hipotesian?”, galdetu nion atzera, uda-partean Euskal Herrira etorri zenean, berriz ere inbasio-hotsak zabaldu bait ziren. “Ez al da, gero, aginte sandinistaren maniobra, herriak mobilizatua jarrai dezan eta gosea ahantz dezan?”.

“Ez dugu guk asmatu inbasioarena. Lau haizetara aldarrikatuz dabilta berak, lotsarik gabe. Hor daude Bush-en azken hitzak, esanez, erregimen sandinista desegin egin behar dela, nola edo hala, zuzenean esku hartuz bada ere. Abisu hauek seriotan hartuko ez bagenu, ez genuke guk herria mobilizatuko, bestela ere badugu eta zertan mobilizaturik”.

Inbasioaren beldurra, benetakoa izan da Nikaraguan; bizpahiru aldiz bederen bai. Damokleren ezpata hori hortxe ikusten dute zintzilik beren buru gainean.

Egunak aurrera joan ahala, badirudi interbentzio zuzenaren hipotesia urrunduz doala, desagertu gabe, halere. Hezurmamitzen ari dena bestea da, gastatze-gerrarena, asfixia ekonomikoarena, D. Ortegak salatzen duen “guerra encubierta”, gerra isila, ezkutua. Reagan-ek internazionalki isolatu egin nahi luke Nikaragua (ekonomikoki, politikoki, diplomatikoki) eta bertatik zirikatu (kontren bidez).

Reagan-en apostua zein den? Denboraren buruan, fruta heldua bezala, berez jausiko dela aginte sandinista, zuhaitza pittin bat astinduz. Prozesu luzeagoa, baina amerikarrentzat “garbi”agoa.

Nazioarteko harreman ekonomikoak moztuz, barneko egoera ekonomikoa, soziala, politikoa gaiztotu egingo da Nikaraguan: oinarri-oinarrizko produktuak eskasten hasten dira; dendaurreko jende-sokak ugalduz doaz. Janari eta energi kontsumoa aurrezteko neurriak hartu behar ditu Gobernuak. Neurri hauek deskontentua dakarte, eta ez oposizioan bakarrik; erregimenak aginduriko promesa betegabeek frustrazioa sortzen dute; inbertsio sozialak ere burutu gabe gelditzen dira (eskolak, osasundegiak, etxebizitzak...).

Egoera, jasan ezinaren ezinaz, nonbaitetik lehertu arte, pazientzia iraultzaileak ere bere mugak bait ditu.

Ukagaitza da barne-tentsioak gogortzea, giroa gaiztotzea espero eta bilatzen duela Reagan-en politikak. Testuinguru horretan, interbentzio-mehatxuak zera dira: nikaraguarrak beldurtzeko, nekatzeko, etengabeko mobilizazioan mantentzeko mehatxu hutsak? Aurretiazko abisuak edo deiak? Nork jakin! Gauza bat eman daiteke segurutzat amerikarren politikari so: garai batean (1982) espero zen irtenbide negoziatuari Reagan-ek uko egin diola behin betiko.

Reagan-entzat kasu galdua da Nikaragua.

“Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote”

Amaitzeko, puntutxo batzu azpimarratu nahi nituzte Nikaraguan ikusi eta ikasiaz.

Sozialismoaren eredu propio bat sortzeko pretentsioa du Nikaraguak

Eredu horren adierazpen egoki bat, hauxe litzateke: Herri-demokrazia pluralismoan eta askatasunean. Sortu nahi duen gizarte-modua ez da kapitalista, ez da dependentea, ez da totalitarioa. Kuba-bis? “Anaia zaharraren” eredu hori aipatzen diezunean, ez direla alferrik pasa 25 urte harez gero gogoratzen dizute. Nikaraguak badu Kubarekin antzik, eta baita ere ezberdintasunik.

Determinatzailea gertatzen da Nikaraguako iraultzan aipaturiko hiru korronte indartsuen partaidetza eta bateratasuna: nazionalismo-antiinperialismoa, marxismoa, kristautasuna. Kubaren aldean, hau berria da. Eta obratu nahi duten eredu sozialista horren berezitasunen artean sar daiteke: pluralismo politikoa, ekonomia mistoa eta ez-lerrokadura. Iraultza-motaren ezaugarri dira, baita ere, malgutasuna, praktikotasuna, ez-doktrinario izatea, irekitasuna, dogmatismorik eza, autokritika, barne-eztabaida

Eredu hau, bere jatortasunean, oso kutsakor litzateke inguruan, aipaturiko hiru korronteok, hirurok, bait daude Ertamerikan

eta Latin Amerikan ondo txertaturik. Demokrazia herritarra pluralismo politikoan, ekonomia mistoa eta kanpo-politika ez-lerrotatua, formula berritza daukate berek eta askok uste dute Latin Amerikako problemaren gakoa hortxe dagokeela.

Eredu horren definizioaz duda-izpiren bat izan dut inoiz edo behin: benetan eredu berria al da ala erdizkako sozialismoa? Gurean frankismoarekiko haustura gutxiegi izan den bezala, han ere ez ote da horrelakoren bat gertatzen? Ez dakit.

Oraino finkatu gabe dago iraultza

Aginteak bai, aginteak ongi finkatua dirudi. Baina gerra dela eta, USAren blokeo ekonomikoa dela eta, aginteak ezin izan du agindu zuen politika nahi bezala praktikan jarri eta obratu. Dauden problema ugariak aintzat hartuta, kontsolidatzeke dagoelako inpresioa hartzen du batek, batez ere ekonomiaren alorrean.

Dilema-sail bat dago airean, oraindik arras soluzionatu gabe:

- dilema ekonomikoa: nola obra ekonomia hori, gehienbat pribatuaren eskuetan dagoena, kapitalaren logikatik barik, gehiengo handien logikatik bidera dadin?
- Dilema politikoa: nola promoziona alderdien partehartzea bizitza politikoan, horrenbeste kostaturiko hegemonia eta kontrola galdu gabe? Nola mantentzen pluralismo politikoa, diktaduraren aurkako borrokan sorturiko gehiengoaren itzarokizunei erantzunez?
- dilema nazionala: nola bihur Nikaragua independente eta bere buruaren jabe, USAk ontzat emana, Ipar Amerikako interesentzat barruti estrategiko eta bitalean kokatzen delarik?

Nikaraguako iraultza ez da palazio-iraultza izan

Alegia, 1979ko uztailaren 19koa Iraultza izan zen, eta ez erreforma. Lau urtetako borroka hiru helburu zituen: Somoza gainetik kentzea, Inperialismoa kanporatzea eta Iraultza egitea.

Lehen bi puntuetan denak zetozen bat: oraingo agintea eta oraingo oposizioa ere bai. Ez horrela hirugarrenean. Robelo-k, oposizioaren buru egiten zuenak, aditzera eman zuenez, burgesiak

espero zuen bera geldituko zela aginte politikoarekin, FSLNk armada osatuko zuelarik. FSLNk, ordea, ez zuen egitasmo bera.

1981eko krisi politikoa, oposizio politiko ez-sandinistaren zati batek Junta utzi zuenekoak, Iraultza/Erreforma eskemaren bidez interpreta daiteke hobekienik. Arrazoia zeinek zuen aparte utzita orain, haustura hau munta handikoa izan zen, egun argitan etenik nahi ez zuen erregimenaren etorkizunerako. Sandinismoaren eta oposizioko korrante ezberdinetako pertsonaia ezagun batzuren arteko dibortzioa agerian gelditu zen orduan. Oposizio politikotik klandestinitatera, are kontrairaultzara, lerratzen dira batzu.

“De frente contra el Frente” da PCDren kontsigna. Oro har, badirudi oposizio politikoak, eskuinak, ez duela Gobernuaren joko-arauetan parte hartu nahi, prozesu hau ez legitimatzearren. 1984eko hauteskundeetan berriz agertu zen joera bera. Ematen du, nahiago duela boikota, erretiratzea.

Joko-arauetan dago problema, noski. Demokrazia bai, baina zein demokrazia? Demokrazia burgesa, liberala nahi luke oposizioak. Aginteak, aldiz, demokrazia herritarra.

Nikaraguaren problema USA da

Nikaraguaz ari delarik “si loin de Dieu et si près des États-Unis” idatzi zuenari ez zaio arrazoirik falta. USArekiko hurbiltasun horixe da Nikaraguaren zoritxarra. Geopolitokia omen da arazoa.

Antza denez, negoziaketa-bideak oro itxi egin dizkio Reagan-ek Ortega-ri. Manzanillo-ko elkarrizketa zuzenak, bi nazioen artekoak, 1985eko urtarrilean bertan behera utzi zituen Reagan-ek bere kasa. Okerrago dena: negoziaketaren bidetik beste inork soluziorik bila eta aurkez dezan ere boikoteatu egiten du. Hor dago “Contadora”. “Contadora” taldeak, nazionalismo latin amerikar edo bolivarianoak, egin dituen bake-proposamenak behin eta berriz txantajeatu ditu Reagan-ek, berak zuzenean edo bere gobernu kuttunen bidez. Managuako erregimena akabatzea da soluzioa eta ez dago bestelako irtenbiderik.

Zer gertatuko da?

Reagan-en egunak kontatzen dituenik badago Nikaraguan, betiko ez dela eta. Bitartean eutsi egin behar, ahal den moduan.

Nork jakin zer gerta daitekeen: Reagan-ek nahi bezala erregimena erori egingo ote da, fruta zori bailitza, erradikalizatu egingo ote da, eta, iraultza mantentzeagatik, Soviet Batasunari entregatuko ote zaio? Jatorrizko egitasmoa bere osoan aurrera ateratzerik izango ote du sandinismoak?

Erregimenaren gogortzearen hipotesian, sandinismoak ez luke erakutsiko gero orain arretaz ezkututzen omen duen aurpegi marxista-leninista hori, propaganda inperialistak salatu ohi duen bezala, baizik eta, nire ustetan, galdu egingo luke hastapeneko proiektuaren jatortasuna, eta hori Inperialismoaren erruz. Ukatzerik ez bait dago proiektu berri bat egon badagoela. Eta burutzea ezinezko gertatzen bada, ikusi egin beharko da, zergatik gertatzen den ezinezko. Txekoslovakian bezalatsu. Txilen bezalatsu.

Nazioa eta askatasuna, gauza bera

Askatasuna defendatzea, iraultza defendatzea eta nazioa defendatzea nahasi egiten dira Nikaraguan. Bata besteari lotuak ageri dira hirurak, elkarri eusten.

Berehalakoan antzeman daiteke nikaraguar izateaz duten harrotasuna, barne-harrotasuna. Iraultzarekin deskubritu dute askatasuna eta nazioa. Nazio bat dute eskuartean orain, lehenengo aldiz, eta askatasun-tresna zaie bera. Iraganean amerikarren "atze-ko patio" eta "errepublika bananero" izana, hori bera antiinperialismoaren aitzindari bihurtu da. Iraultza aurretik zer zen nikaraguar izatea? Hutsaren hurrengoa. Gaur, ostera, ohore bat.

Harrotasun hori, sinbolo izatean ere badatza. Nikaraguarrak badaki, iraultza sandinistari esker, gaur egun sinbolo nazionalista eta antiinperialista bilakatu dela Nikaragua: munduko bi bloke hegemonikoetatik landa, alternatiba independentearen alde borrokatzen diren nazioarteko indarren Meka. Den txikia izanik, Europa ez bezala, Amerika munstro horri aurpegi ematera ausartzen dela eta, harro daude.

Ez paradisu eta ez "goulag tropikal"

Nikaraguan ez da dena on, ez da dena txar. Edozein giza obratan bezala, denetik dagoela esan beharrik ba al da?

Prozesu bat da Nikaraguako iraultza. Prozesu oso konplexua, gainera.

Egia da, arazo etniko-nazionalarekiko aski begirunerik gabe, hutsegite frango egin zuela gobernu sandinistak miskitoekin eta beste minoriekin. Baina bai aitortu eta sendabidea bilatu ere, Autonomi Estatutua martxan jarriz, Ertamerikan beste inon ez bezala.

Egia da zentsura dagoela Nikaraguan. Baina *La Prensa* bizi da, eta bizi dira makina bat irratia antisandinista. Askatasun eskasagoko diktadura internazionalki onartuagorik ezagutu dugu, ez aspaldi eta ez urruti.

Egia da armak erosten ari dela Nikaragua. Baina deklaratzendu, arma horiek denak defentsiboak direla, aldameneko herrietan kokatuz egiten dioten agresio-gerrari erantzuteko.

Egia da preso politikorik badela Nikaraguan. 2.200en bat omen dira, horietatik 2.000 goardia somozista izanak eta 200 kontrakoak. Baina, sandinismoak, agintea hartzarekin batera, heriotz-zigorra kendu egin zuen. Eta preso horietako asko ez dira presondegietan bizi, "fincas abiertas" direlakoetan baizik. Eta, bestalde, naziak libre gelditu al ziren gerraostean?

Egia da zenbait funtzionari eta ideologoren artean egon dela sinplekeria antierlijiosorik; baina erlijio-pertsegiziorik ez dago, ezta gutxiagorik ere.

Egia da razionamendua badela eta inoiz errenkada luzerik egin behar dela dendatan; baina hori ez dagokio erregimenaren politikari, eta bai USArenari, eta, horrez gain, oinarrizko janarien bana-keta segurtatua dago.

Egia da somozatarrei ondasunak konfiskatu egin zitzaizkiela; baina herriaren zerbitzu zuzenean erabili dira, eta lurak banatu egin dira hain premiazkoa zen lur-erreformari hasiera emanez.

Egia da 1984eko hauteskundeak egiteko baldintzak ez zirela hoberenak (gerra, zentsura, emergentzi legea, horniketa-zailtasunak); baina hauteskundeak ospatu egin ziren, denentzat kondizio beretan.

Luze jarrai liteke honela. Gogoratu bakarrik, Iraultzaren lorpenen artean, hor daudela Alfabetatzean, Hezkuntzan, Lur-banaketan, Osasunean egindako ahaleginak.

“Nikaragua da Amerikaren kausa”

“Nicaragua es la Causa de América” idatzi zuen Casaldáliga famatuak.

Ertamerikar eta Hegoamerikarrentzat da batez ere horrela, egoera berean edo beretsuan aurkitzen den herri asko bait dago lur horietan. Liberazio-mugimenduek oro Nikaragua dute, eredu ez bada, erreferentzi puntutzat.

Europarrentzat besterik da, sarritan eta tamalez. Europako ezker klasikoak nahiago du maiz bere garbitasun utopiko eta urrutikoan jarraitu, hangoa entzun, ikusi eta ulertu baino. Deslilurapen handien soka horretan azkena da Nikaragua, SESB, Txina, Kuba, Vietnam, Kambodia, etab.en ondoren.

Europar bertan, zenbait gutxiengorentzat, gutxiengo politiko zein nazional, esperantza handia izan da, eta da oraino Nikaragua. “Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote...”.

J. M. T.

NICARAGUA LIBRE, EN CENTROAMERICA LE NICARAGUA LIBRE EN AMERIQUE CENTRALE

Ningún reportero puede ya llegar a Nicaragua con ojos “inocentes”. La polémica impone sus esquemas: es Nicaragua tan violentamente dulce, como la ha cantado Julio Cortázar; o, más bien, otro Estado marxista-leninista más en ciernes, sin poder manifestarse como tal, como lo juzga, por ejemplo, Vargas Llosa? El presente artículo recoge a modo de reportaje las vivencias, impresiones, conversaciones y entrevistas de un periodista vasco que visitó aquel país el año pasado.

Nicaragua no oculta información: es la primera constatación del reportero. Como primer dato obligado de sus impresiones resalta el aspecto humano: la cordial hospitalidad que le ha dispensado el pueblo “nica” a todos los niveles y en todo momento amable y generosamente. Es un país en guerra: pero se respira paz y

tranquilidad en las gentes. El representa a una revista pequeña, de un país pequeño: pero todas sus exigencias informativas son atendidas tan exquisitamente como si se tratara de un gran rotativo.

Luego, la Revolución se ve. Se palpa el resurgir de una nueva vida por doquier. El 19 de julio de 1979 las tropas sandinistas entraron en Managua victoriosas. En su proyecto, las bases de la Nueva Nicaragua: libertad y pluralismo político, economía mixta planificada, no-alineamiento internacional, unidad nacional.

Seis años después, qué resultados ofrece la Revolución para que pueda ser juzgada por sus obras? Hay algo previo a toda valoración de resultados parciales: es el orgullo de la gente por "su" revolución. Orgullo nacional, generalizado, común a los líderes y a las gentes más sencillas, tanto más desconcertante e impresionante cuanto más sencilla es la gente y más patente su manifestación. El pueblo "nica" se reconoce hoy a sí mismo con orgullo: se sabe un símbolo internacionalmente reconocido, pero ante todo se sabe un pueblo que ha sacudido siglos de opresión, dictadura y miseria. Este espíritu general es acompañado de logros incontestables: la reforma agraria, las mejoras en sanidad y vivienda, escolarización, alfabetización.

Quizás el logro más universalmente reconocido lo constituye la alfabetización. La "Cruzada Nacional de la Alfabetización" se decidió a los 15 días del triunfo sin tiempo aún de contar los muertos. Con el lema "el pueblo educa al pueblo", 200.000 jóvenes fueron movilizados para la "batalla de los lápices". Pero no se trata de una simple alfabetización de masas analfabetas: el reportero puede admirar los resultados de la ingente recogida informativa del acervo cultural del país llevada a cabo (riqueza etnográfica, artística, tradición y literatura oral, etc.). El país se estudió también a sí mismo. La cultura popular ha hallado reconocimiento.

A este respecto el reportero vasco se interesa especialmente por el problema de los indios misquitos, problema aireado con frecuencia por las agencias americanas como un caso de genocidio. El autor señala los graves errores cometidos por los funcionarios sandinistas en este campo, por precipitación y por ignorancia —errores que le son reconocidos y aceptados por los entrevistados—, y expone las causas más profundas de los mismos, planteando el problema en su contexto histórico, geográfico, social y estratégico-militar. En la actualidad se elabora un Estatuto de Autonomía que dé solución al problema del mosaico de etnias que constituye la Costa Atlántica. Problema que, es preciso no olvidarse, nunca había sido abordado hasta ahora por los Gobiernos anteriores.

Otro tema candente lo constituye el de la libertad política, religiosa, informativa. Políticamente, el proyecto sandinista propugna el pluralismo con hegemonía popular, voluntad confirmada por las elecciones del 84. El FSLN es hegemónico con el 67 % de los votos. La oposición política, dentro y fuera del Parlamento, no es muy fuerte y se halla dividida. El articulista observa que, en realidad, dos instancias no directamente políticas aglutinan la oposición más importante al régimen: son el diario "La Prensa" y el Arzobispado de Managua.

El autor constata la libertad de prensa en Nicaragua, como lo prueba la existencia misma de "La Prensa", agente catalítico de la oposición, totalmente enfrentado

al régimen sandinista. Sin embargo, por lo que ha podido constatar, sus dificultades con la censura no son del ámbito ideológico, sino del informativo, particularmente en temas referentes a la seguridad nacional y al abastecimiento. Censura propia de un país en guerra. Por lo demás el protagonismo internacional de "La Prensa" oculta la realidad: hay en Nicaragua otros dos diarios, unas 40 publicaciones periódicas no diarias y unas 50 radios, algunas de ellas sandinistas. Las dos cadenas de televisión son estatales.

El espinoso tema de la libertad religiosa se revela en el fondo como una cuestión política. La Iglesia nicaragüense está dividida. El Arzobispo de Managua, Cardinal Obando, protagoniza en su persona una buena parte de la oposición al FSLN, con temas como la persecución religiosa, el totalitarismo del régimen, la violación de los derechos humanos. Frente a él, las comunidades cristianas de base, viveros que fueron de revolucionarios sandinistas. Hoy mismo son muy numerosos los cristianos (laicos militantes, sacerdotes, religiosos) que participan en las instituciones sandinistas y en la construcción de la Revolución. La pretendida persecución religiosa no es tal, sino prolongación de la lucha política en lo religioso. Aunque las dificultades sean incuestionables, la pretensión de hacer de Nicaragua la Polonia de Centroamérica se revela como una maniobra interesada sin base en la realidad.

La reconstrucción económica constituye la tarea prioritaria en el proceso de reconstrucción nacional. La guerra había destruido las bases de la economía nacional. El proyecto sandinista opera en base a los principios de la economía mixta: coexistencia de la economía planificada y de la economía de mercado, con hegemonía estatal y social. Siguiendo los mismos principios, la reforma agraria se aplica diferenciando el sector privado, el socializado o cooperativizado y el estatal, con criterios de flexibilidad y pragmatismo. Sin embargo, este desarrollo se ve seriamente perjudicado por la situación bélica, que inevitablemente afecta también a los aspectos políticos y sociales del desarrollo nicaragüense.

En realidad es la contrarrevolución la que más está condicionando la consolidación y desarrollo del proyecto sandinista. La "contra" hace temprano su aparición, al año y medio del triunfo revolucionario. Inicialmente son grupos de antiguos guardias somocistas, organizados, armados y financiados desde EE.UU. Según el análisis del reportero, su objetivo no parece tender a una victoria militar, a una toma directa del poder, sino a la lenta erosión de las bases de la economía nacional y a la consiguiente desestabilización política, como efecto de una guerra de desgaste de alto coste económico y político para el gobierno sandinista. Ni por su origen ni por sus características actuales se trata de una guerra civil, sino de simple y llana guerra de agresión. De hecho, esta guerra, aunque limitada prácticamente a las fronteras, incide ya en la vida interior del país: obliga al Gobierno a la adopción de medidas impopulares como restricciones en el consumo (racionamiento, etc.), austeridad económica, movilizaciones de la juventud para el frente, "olvido" temporal de las promesas de mejora social (reducción de inversiones en educación, sanidad, vivienda, etc.). Hay que añadir a ello el cerco general del que Nicaragua es objeto por parte de EE.UU., ya que en el fondo la "contra" armada no es seguramente más que un capítulo, importante, de esa estrategia de cerco.

Nicaragua es toda ella como una ciudad sitiada. Sitiada y cercada por los EE.UU. Económicamente: el bloqueo económico y financiero; militarmente: la

contra; políticamente: la negativa a negociar la paz; informativamente: se vende la imagen de una dictadura, de un Estado marxista-leninista. EE.UU. busca la destrucción del proyecto sandinista por estrangulamiento, por asfixia, quizás ya no por la intervención directa.

A la vuelta de Nicaragua, la prioridad de prioridades es la información. Nicaragua está al Sur, no al Este, es la esperanza del Sur, la Causa de América. Es una revolución como la gente misma: flexible, no dogmática, dotada de una gran capacidad de autocrítica. El reportero cree haber descubierto en Nicaragua la búsqueda decidida de una sociedad "ni capitalista, ni dependiente, ni totalitaria".

Aucun reporter ne peut débarquer au Nicaragua avec des "yeux innocents": La polémique impose ici ses schèmes; ou bien le Nicaragua est "violemment doux" comme chante Julio Cortázar; ou bien c'est un état marxiste-léniniste de plus, en germe, qui n'a pas la possibilité de se manifester comme tel, d'après Vargas Llosa par exemple. Ceci est le récit des expériences, des impressions, des conversations, des entrevues d'un journaliste basque qui a visité ce pays l'an dernier.

Le Nicaragua ne refuse pas ses informations: c'est une première constatation du journaliste. Ce qui ressort de ses premières impressions c'est l'aspect humain de l'accueil: l'hospitalité cordiale que lui a offerte le peuple du Nicaragua, aimablement et généreusement, à tous les niveaux et à tout moment. Le pays est en guerre, mais on y respire paix et tranquillité parmi les gens. Le journaliste que je suis représente une petite revue d'un petit pays, mais on répond à mes demandes de renseignement comme s'il s'agissait du reporter d'un grand journal.

La Révolution se voit, se palpe, comme la naissance d'une nouvelle vie, de tous côtés. Les troupes sandinistes sont rentrées victorieuses à Managua, le 19 juillet 1979. Elles avaient en projet les bases d'un nouveau Nicaragua: liberté et pluralisme politique, économie mixte planifiée, non-alignement international et unité nationale.

Six ans après, quels sont les résultats qui permettent de juger la Révolution selon ses oeuvres? Avant toute évaluation de ces résultats partiels, il convient de noter la fierté du peuple pour "sa révolution": fierté nationale, généralisée, commune aux leaders et aux personnes les plus modestes, fierté d'autant plus impressionnante et déconcertante qu'il s'agit de gens simples et que leur sentiment est manifeste. Le peuple du Nicaragua se reconnaît aujourd'hui lui-même avec fierté et se connaît comme symbole internationalement reconnu. Il sait surtout qu'il est un peuple qui a supporté des siècles d'oppression, de dictature et de misère. Ce

sentiment général s'accompagne de résultats incontestables: la réforme agraire, les améliorations de l'habitat et de l'état sanitaire, la scolarisation, l'alphabétisation.

Peut-être le résultat le plus universellement reconnu est-il celui de l'alphabétisation. La "croisade nationale d'alphabétisation" s'est décidée 15 jours après la victoire, avant même d'avoir le temps de compter les morts. Sous la devise: "le peuple éduque le peuple", 200.000 jeunes se mobilisèrent pour "la bataille des crayons". Mais il ne s'agit pas de la seule alphabétisation de masses analphabètes: le journaliste peut admirer les résultats de l'immense collecte informative du patrimoine culturel du pays que l'on a menée à bien: richesses ethnographiques et artistiques, littérature et tradition orale. Le pays s'est étudié aussi lui-même. La culture populaire a obtenu sa reconnaissance.

A ce propos, le journaliste basque s'intéresse particulièrement au problème des indiens Misquitos, problème souvent présenté par les agences américaines comme un cas de génocide. L'auteur signale les graves erreurs commises par les fonctionnaires sandinistes en ce domaine, par précipitation et par ignorance. Ces erreurs sont admises et reconnues par les personnes entrevues. Quant à lui il expose les causes plus profondes de ces fautes, en situant le problème dans son contexte historique, géographique, social et stratégique-militaire. Actuellement on prépare un Statut d'Autonomie qui donnera une solution au problème que pose la mosaïque d'ethnies qui occupe la Côte Atlantique. Problème qui —ne l'oublions pas— n'a jamais été abordé jusqu'ici par les gouvernements précédents.

Un autre thème important, c'est le problème de la liberté politique religieuse et informative. Politiquement, le projet sandiniste défend le pluralisme dans le cadre de l'hégémonie populaire, volonté confirmée par les élections de 84. Le FSLN est le parti dominant avec 67 % des votes. L'opposition politique au dehors et au dedans du Parlement est faible et divisée. Le journaliste observe que deux instances non directement politiques rassemblent en réalité l'opposition la plus importante au régime: le journal "La Prensa" et l'archevêché de Managua.

L'auteur constate que la liberté de la presse existe au Nicaragua, comme le prouve la parution même de "La Prensa", agent catalyseur de l'opposition, directement dressé contre le régime sandiniste. Cependant on peut observer que ses difficultés avec la censure ne sont point d'ordre idéologique, mais informatif, portant sur des questions concernant la sécurité nationale et le ravitaillement; censure caractéristique d'un pays en guerre. Pour le reste, le protagonisme international de "La Prensa" occulte la réalité: il y a aussi au Nicaragua d'autres journaux, environ 40 publications non quotidiennes et une cinquantaine de radios, dont certaines sandinistes. Les deux chaînes de télévision appartiennent à l'état.

La difficile question de la liberté religieuse se révèle au fond comme une question politique. L'Eglise au Nicaragua est divisée. Le cardinal Obando, archevêque de Managua réunit autour de lui une bonne partie de l'opposition au FSLN, avec des sujets tels que, la persécution religieuse, le totalitarisme du régime, la violation des droits de l'homme. En face les communautés de base chrétiennes qui furent des pépinières de révolutionnaires sandinistes. Au-

jour d'hui encore nombreux sont les chrétiens laïques, prêtres ou religieux qui participent avec les institutions sandinistes à la construction de la Révolution. La prétendue persécution religieuse n'est que la poursuite du combat politique sur le plan religieux. Quoique les difficultés soient réelles, la prétention de faire du Nicaragua la Pologne de l'Amérique Centrale est une manoeuvre intéressée, sans lien avec la réalité.

La reconstruction économique constitue une tâche prioritaire du processus de reconstruction nationale. Le programme sandiniste se fonde sur les principes de l'économie mixte: coexistence de l'économie planifiée et de l'économie de marché, mais hégémonie du national et du social. Selon ces principes, la réforme agraire distingue le secteur privé, le secteur socialisé ou coopérativiste et le secteur nationalisé, compte tenu de critères de flexibilité et de pragmatisme. Le développement est pourtant troublé par la situation de guerre, qui affecte aussi inévitablement les aspects politiques et sociaux de tous les problèmes du Nicaragua.

C'est en réalité la contre-révolution qui conditionne la consolidation et le développement du projet sandiniste. La "contra" est apparue très tôt: un an et demi après la victoire sandiniste. Au début ce sont d'anciens gardes "somozistes", organisés, armés et financés depuis les Etats-Unis. Selon l'analyse du journaliste, son objectif n'est point la victoire militaire, mais la lente érosion des bases de l'économie nationale, puis la destabilisation politique qui s'ensuivrait, comme conséquence d'une guerre dont le coût économique et politique est fort élevé pour le gouvernement sandiniste. Ni par ses origines ni par ses caractéristiques actuelles cette guerre n'est une guerre civile, mais tout simplement une guerre d'agression. Bien qu'elle se limite aux frontières elle atteint en fait déjà la vie de l'intérieur du pays: elle contraint le gouvernement à prendre des mesures impopulaires comme les restrictions de consommation (rationnement, etc.), l'austérité économique, la mobilisation des jeunes pour le front, "l'oubli" temporaire des promesses d'amélioration sociale (réduction des investissements pour l'éducation, la santé ou l'habitat, etc...). Il faut ajouter le harcèlement général auquel le Nicaragua est soumis de la part des Etats-Unis, car au fond la contre-révolution armée n'est qu'un élément, important il est vrai, de cette stratégie de harcèlement.

Le Nicaragua tout entier est comme une ville assiégée; assiégée et encerclée par les Etats-Unis: Economiquement, c'est le blocus économique et financier; militairement, ce sont les "contras"; politiquement, c'est le refus de négocier la paix; informativement, c'est l'image répandue d'une dictature, d'un état marxiste-léniniste. Les Etats-Unis cherchent la destruction du projet sandiniste par étranglement et par asphyxie, sinon par intervention directe.

Au retour du Nicaragua, la priorité doit être donnée à l'information: Le Nicaragua est au Sud, non à l'Est, il est l'espérance du Sud, la Cause de l'Amérique. C'est une révolution comme le peuple lui-même, flexible, non dogmatique, doté d'une grande capacité d'autocritique. Le journaliste témoin croit avoir découvert au Nicaragua la recherche d'une société qui ne serait "ni capitaliste, ni dépendante, ni totalitaire".